

uk

206. zenbakia / 2011ko abenduaren 21a





ERANDIO ELIZATEKO UDALA

2011/2012 DIRU-LAGUNTZAK

euskara ikasteko

**ARAUDI
BERRIAK**

*gidabaimena
euskaraz
ataratzeko*

1

2



Euskara Zerbitzua

ADI, epeak:

1 2012ko urtarriaren 2tik
aztarraren 16ra arte

2 2011ko abenduaren
30era arte

www.erandio.net
euskara@erandioko-udala.net
944890128



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Cultura




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


EL FORO VASCO
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE CULTURA

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIDEA: Martikoen 16, 2. solairua 48992 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate,
Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Zortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia,
Armando Llamas, David Crestelo Kres, Algortako Bertso Eskola
eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Laster Grafika S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

 Getxo UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara zerbitzua	 Bermeo UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua
 Leioa UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua	 Ybilla UDALA - AYUNTAMIENTO Euskara Zerbitzua
 Erandioko Udala	 Sopelako Udala
 Urdulizko Udala	 Plentziako Udala
 BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia Kulturako Saila Departamento de Cultura	 Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Uribe Kostako Justuri irratien aurkezpena.
6. FACEGUK. Nori oparituko zenioke ikatzak?
7. LEHEN ETA ORAIN. Aingeruaren etorbidea (Getxo), 1994.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Alfonso Garcia.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Itxartuko dantzarien kalejira.
28. ARGAZKIA. Plentziako eskabete-lantegia.
30. BERBETAN. Cony Carranza.
34. FOTOGRAFIA. Markel Redondo: Olentzeroren iloba munduan.
40. SAKONEAN. Binilotik sarera ekimena.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Mikel Abasolo, Bimotion taldea.
43. MUSIKA. Kuenta atras taldea.
44. LIBURUAK. Erlea aldizkaria.
45. KIROLAK. Itxas-Argia mendi taldea.
46. ELKARRIZKETA. Iñigo Iruiz "Iru", Olentzeroren iloba.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Oilasko takoa.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako Biotz Alai abesbatza, 1968.
54. AITORMENAK. Etxe.

Azala: Markel Redondo


www.ukaldizkaria.biz



30 Cony Carranza

Berbetan

El Salvadorren jaio eta hazi,
bertokotu eta Santurtzin du etxea
generoa lantzen duen soziologoak.



11 Alfonso Garcia



54 Etxe

Clio Industrial 19 EURO egunero



Kango luzea 35 EURO egunero



Kango 25 EURO egunero





Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
Tf. 94 480 46 02

Leihatila

> Pedro Garcia Larragan

Pezetak

Europako azken goi bilerak ez du ezer konpondu. Eta adituen ustez, barriro pezetatan kobratzetik, gero eta hurrago gaude. Ez da makala. Euro txanpona desagertzeko arriskuan dago, 'eurogune' delakoaren 17 herriak krisia zelan gainditu ados ipintzen ez direlako. Edo hobeto esanda: landutako konponbidea bideraezina delako.

Gure agintari askok, zorrak ordaintzeko, gastuen murrizketa proposatzen du. Baina ahaztu egiten dute, zorra ez dela arazo nagusia. Problemarik handiena, hazkunde eza da: gure ekonomia ez da hazten, eta horrela ez dago zorrik ordaintzerik. Gastuen kontrolaz gain, ez dute ekonomia suspertzeko plan berezirik prestatu. Horrela, esandakoa: pezetatan, markotan, liritan, ...kobratzetik, pauso batera gaude. Baliteke adituak okertzea. Baliteke.

Gastu-murrizketak beharrezkoak dira, baina hori bakarrik ez da nahiko izango.

gu geu

Eurrerabegirakoak

Urteko azkeneko UK honi gainbegiratua eginez gero bi dira, gura ez dela ere, nabarmenduko zaizkizuen kontuak; batetik, ixiltzen diren ahotsak eta ixten diren begiak, eta bestetik ikazkinarenak. Ostera, hurrengo urtean Justuri irratiko ahotsak aineratuko dira, ikatza eskaintzen jarraituko dugu, doako opariakaz hunkitzen segiko dugu eta itsasoari adi begiak bustiko zaizkigu barriro bere...

Urte akabuan, ohi dan legez, atzerabegirakoak egiten ditugu, batzuek *largabistagaz*, beste batzuek miopeen anteojuakaz. Badaezpada ez ezazue UK mikroskopiota pas... Gure artean gogokoago ditugu eurrerabegirakoak eta urte barriari teleskopiotik begira gabiltza. Badakizue zer dakusagun? Aurton legez, irriak eta malkoak, gedartxuak eta laztantxuak, diru kontuetan “dana lanbrotute” ikustegu!

Eta 2012rako... aurtengo onak baino hobeak, eta aurtengo txarrak baino gitxiago!

Urte barri on! Datorrenera arte!

UK-ko lantaldea

***OHARRA: UK 205. zenbakiko 29. orrian Romoko uriolak 1983an izan zirela idatzi genuen, irakurleek jakinarazi digutenez data okerra da hori; 1977ko ekainean izan zirelako.**

Iritzia

Biotz Alai abesbatzako kideek urtetan zuzendari izandako Juanjo Gainzaren hileta elizkizunean irakurritako esker oneko eta omeneko idatzia helarazi digute.

Dolua Biotz Alain

Azaroaren 25ean Biotz Alai abesbatza umezurtz geratu zen. Abesbatzari benetako bizia eman zion gizona hil zen.

Hogeita bi urtez zuzendaria izan zen, eta beste hogeita bi urtez Javi Oyarzabalekin batera lan egin zuen hariak prestatzen,

«Abesbatza oso garrantzitsua izan zen berarentzat eta, bera, berriz, abesbatza bera zen»

baita Javik agintzen zizkion abestiak eta zereginak gauzatzen ere, 44 urtez egunero joaten zen saioetara.

Abeslari asko egon da abesbatzan, baina abesbatzan beti egon zena bera izan

zen, Biotz Alaik duen izaera berezi hori emanda. Izan ere, herri-abiesbatza da, eta jendearekin nahastea eta musika kalitateaz eta kategoriaz ahaztu gabe abestea gusatzen zaio; kalitate hori abesbatzak mundu erdira eraman duen errepertorio zabalean islatzen da oraindik, Gainzak zuzendari lanetan emandako urteei esker.

Zuzendari gisa emandako urteak ospetsuak izan ziren abesbatzarentzat,

baina berak garrantzia kentzen zion, talde bikaina eta une egokia zirela esanez. Haren batutari jarraituz abesteko zortea izan genuenok ezin ditugu haren eskuak ahaztu, berez hitz egiten zutenak eta abesbatza abestien edertasun eta indar osoan murgiltzea lortzen zutenak.

Pentsatu nahi dut aurretik hil diren abeslariak osatzen duten eta orain zeruan bizi den abesbatza handi horretako zuzendari bihurtuko dela gure laguna. Eta, hara heldu bezain laster, abesbatza saioak prestatzeari ekingo dio.

Beharbada gurasoei inoiz maitasuna adierazi ez dieten eta, jada hori adierazterik ez dagoenean, negar egiten duten seme-alaben modukoa izan da Biotz Alai Juanjorekin. Aspaldian parrokiak egin zion omenaldia zela-eta hemen bertan esan nuen bezala, San Nikolasen ondoren, bera zen parrokiako zaharrena eta hemen ordu gehien eman zituenena. Jakin badakit, edonon dagoela, guri entzuten ari dela eta, beraz, orain esan nahi diot, Biotz Alaiko lagun eta lagun ohi guztien izenean, oso maite dugula, eskerrak ematen dizkiogula guztiagatik eta, bai abesbatzan bai parrokia honetan, inoiz ez zai-gula ahaztuko JUANJO GAINZA izena.

Amaitzeko, eskerrak eman eta barkamena eskatu nahi dizuet Marisabeli, Mariari, Iñakiri eta Imanoli, Biotz Alaiaren izenean, 1966. urtetik, zuek artean oso txikiak zinetela, familia bizitzatik aldendu dugulako saioetarako, emaldietarako eta abarretarako. Badakit askotan lehentasuna ematen ziola saiora garaiz iristeari, etxean familiarekin denbora tarte bat pasatu beharrean. Abesbatza oso garrantzitsua izan zen berarentzat eta, bera, berriz, abesbatza bera zen.

Eskerrik asko, Juanjo!

Txema Batarrita
(Biotz Alaiko presidentea)



ABENDUAK 1, ALGORTA

Ongi etorri, Justuri! / Eskualdeko euskalgintzaren zazpi elkarte indarrak batu dituzte Justuri (tximista, bertoko euskaraz) irratiko proiektu barria sortzeko. Abenduaren 1ean izan zen aurkezpena Algortako Aldai Patronatuan, eta hurrengo urratsa lizentzia lortzea izango da; Eusko Jaurlaritzak Uribe Kostan banatuko dituen lau lizentzietatik bakarra gordeko da euskararentzat. Justuri Irratia parte-hartzailea, euskalduna, multimedia eta tokikoa izango da, eta auzolana izango du oinarri. Parte hartu gura baduzu, ez zalantzarik eduki eta barnera zaitez uhinak astinduko dituen justurian! O / Argazkia: Asier Mentxaka

Gabonetan... nori oparituko zenioke ikatza?

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugu!



Areeta

Javier de Miguel

> jubilatua

Askok eta askok merezi du ikatza, baina batez ere politikariek. Politikari guztientzat esaten dut, orokorrean, ez dutelako funtzionatzen. Eta politikariez gain, bankariei ere oparituko nieke ikatza.



Portu Zaharra

Maria Jesus Polo 'Txusi'

> soldata bako etxekoandrea

Politikari guztiei oparituko nieke ikatza, lapur hutsak direlako. Euren poltsikoak bete baino ez dute egiten, eta besteok antzarak ferratzera bidaltzen gaituzte.



Algorta

Inge Beltran de Guevara

> komertzio bateko langilea

Politikari guzti-guztiei emango nieke ikatza, salbuespen barik. Denei banatuko nieke, lapurtzen duten guztiagatik.



Berango

Imanol Arana

> jubilatua

Zerrenda luzea dut... Hasteko Patxi Lopezi, euskara pikutara bidaltzen ari delako, Gizarte Segurantzza erasotzen ari delako e.a. Rodolfo Aresi ere ikatza oparituko nioke, edozein kontu euskaldun begi txarrez ikusten duelako.



Larrabasterra

Eiharne Pardo

> ikaslea

Ez zait bururatzen... baina norbaiti oparitzekotan, nire irakasle bati emango nioke ikatza (ez dut izena esango badaezpada, kar-kar!). Merezi ez dudan arren, nota txarrak jartzen dizkit, ikusi ezin nauelako!



Plentzia

Anca Dragastan

> etxekoandrea

Urtean zehar gaiztoak izan direnei oparituko nieke ikatza. Hasteko, nire senarrari, kar-kar! Batzuetan apur bat burugogorra da, eta ez dit kasu handirik egiten!



RAMON BELACK UTZITAKO ARGAZKIA



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / AINGERU ETORBIDEA (GETXO, 1994)

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > zaintza partekatua



Berango, 2011ko azaroa

Testua: **Nahikari Ayo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Espainian behera

Haurra hemen daramat
aulkian sartua.
Hor bertan ikusi dut
horman margotua:
“zaintza partekatua”
omen da hautua.
Saman sortu egin zait
korapil estua...
Beti_izaten delako
haurra kaltetua.

Aita-ama artean
arazo andana,
banandu egin ginen
alboratuz dana.
Geroztik aitarentzat
izan zara “zama”.
Baina_ez zaitez kezkatu,
ahaztu iragana:
ez zaizu_inoiz faltako
zure_ondoan ama.

Nahiz aita maiz izan den
arduragabea,
biekin izatea
litzake hobea.
Zoriontsu izan zaitez,
da nire eskea,
Badakit daukazula
barruan gordea
beharrezkoa duzu
aita izatea!

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia



DESKARGATU DOAN EUSKERAZ
www.cianoplan.es/baliabideak



GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

euskara saria > Bittor Egurrolari



Azaroaren 30ean jaso zuen saria

Argia ereiten euskara saria eman dio Udalak Bittor Egurrolari, UK aldizkaria egiten duen Boluntzarreta Euskara Bultzatzeko Elkarteko presidenteari. “Euskararen erabilera babestu, sustatu eta hedatzeko zereginetan nabarmentzen diren udalerriko erakunde, elkarte edo pertsonak saritu gura” dituzte sari honegaz; iaz Laura Lapeyra J.B. Zabala eskolako guraso-elkarteko kideak jaso zuen. Bittor

Egurrolak euskararen alde beragaz lan egin dutenak izan zituen gogoan azaroan egindako ekitaldian: “*Algortan Egunkariaren aldeko Batzordean, Bizarra Lepoan elkarte sortzeko batzordean, Bizarra Lepoan aldizkarian, UKn eta gainontzeko-etan lan egiten dutenak dira nire sari-kideak; oso gustura eta oso erraz lan egin dut. Eskerrik asko guztioi!*”. Gauza bera, Bittor! Euskararen alde, aurrera! ○

opariak > bestelako proposamenak

Zenbat opari erosten da Gabonetan? Jostailuak, liburuak, musika eta abar, oparien uholdea iritsiko da. Telebistako iragarkietan ikus daitezke nazioarteko merkatuan dauden opari berberak, baina, hortik harago, bestelako proposamenik badago gurean. Berbarako, euskal produktuen katalogoa kaleratzen dute urtero: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika

produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak batzen ditu; 100 bat Udalek banatu du katalogoa. Bestalde, zenbait produktu ez erosteko kanpainak ere bizi ditugu; besteak beste, opari “*sexistak*” edota Israeleko produktuak daude. Azken horren kasuan, Euskal Herria Palestina sareak ekimena abiatu du Israeleko jostailurik ez erosteko: 792 zifraz hasten da bertako produktuen barra-kodea. ○



Oparitu euskaraz: www.katalogoa.org



Bretosi Portu Zaharrean egindako argazkia

portu zaharra > Markitos Bretos, agur!

Marcos Bretos *Markitos* hil zitzaigun abenduaren hasieran. 1930ean jaio zen, Algortako Portu Zaharreko etxe batean, eta ia bizi osoa eman du auzoari eta itsasoari lotuta: neraberazoan arrantzan ibili zen aitagaz eta Ameriketara joan zen lan bila. Portu Zaharrera itzuli zen azkenean, eta arraunean ibilitakoa ere bada. Behin baino gehiagotan utzi digu Portu Zaharreko kutsua aldizkariko orrien arte-

an. Besteak beste, Unai Break elkarrizketan polit askoa egin zion orain urte batzuk, eta ederto definitu: “*Markitos Bretos Portu Zaharrari xarma emoten dion pertsonaia horietakoa da: ezin bata bestea barik ulertu. Arrantzari uko eginagatik ere, itsasoa hurbil behar du Bretosek. Portu Zaharrak bezala, azken batean...*”. Orain itsasoa zara, baina ez zara galduko olatuen artean. Agur, *Markitos!* ○

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 *Getaria*
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

URTERO
20€

Harpidetu
eta jaso UK
zure etxean,
hamabostero.
Urtero 20 euro.

Urtero UK aldizkariaren 20 zenbaki.
Urtero Uribe Kostan gertatzen denaren berri.
Urtero eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean.
Urtero argazki zahar eta barriak.
Urtero zure proiektuak lau haizetara.
Urtero 20 euro.



neuk ere gura dot

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz



“Jendeak zenbaki politak erosten ditu, baina zenbaki itsusiek aukera berak dituzte”

Alfonso Garcia > Erandioko loteria-saltzailea

Itxaropentsu, dozenaka lagun batzen da egunotan Erandioko Ibarra kaleko 8. zenbakira. Bertan dago ‘Don Pelayo’ loteria-administrazio ezaguna, eta abenduan, ez dute atseden hartzeko astirik izaten. 13:30ean jarri dugu hitzordua Alfonso Garcia bertako loteria-saltzaileagaz. Teorian ordu horretan itxi behar du pertsiana, baina 14:00etan oraindino ilaran jarraitzen du lagun askok: “*Krisiagaz jendeak dezimoak erosteko gogo handiagoa du, baina diru gutxiago*”. Administrazioa Garciaen gurasoek ireki zuten orain 35 urte, “*Erandio Bilboko auzoa zenean*”. ‘Don Pelayo’ izena jarri zioten, familiak jatorri asturiarra duelako eta Pelayo bertako lehen erregea izan zelako. Gurasoek erretiroa hartu, eta berak hartu du administrazioaren ardura geroztik. Baita hainbat sari potolo banatu ere: “*Oso pozik sentitzen naiz sariak banatzean, ia-ia nik jasoko banu legez. Sentimendua antzekoa izango da, kontu-korronteko aldea kontuan hartu barik, noski...*”. Askok dezimo sariduna saltzeagatik eskerrak ematen dizkiote, “*baina eskertu berbakaz bakarrik, eh!*”. Zenbakia aukeratzeko orduan, ez dago misterio handirik. Garciaen arabera, 00001 zenbakiak besteek beste aukera ditu. “*Jendeak bakoitiak nahiago ditu: 5, 7, 9... Zapatak erostera joaterakoan bezala, jendeak zenbaki politak erosten ditu, baina zenbaki itsusiek aukera berak dituzte*”. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

Tripa handia badator!

Abenduaren 24an iritsiko da **Olentzero** Getxoko kaleetara: antzerkia, pailazoak, **bertsoak**, **erromeriak**, jolasak, txokolate-jana, kantuak **edota ohiko kalejirak** egingo dituzte **auzo guztietan**

Mendira lanean joan zen iaz baina itzuli da, urtero legez, negua heldu dela iragartzeko; **Olentzero da. Auzo guztietan harrera egingo diote abernduaren 24ko arrastian, kantu-kantari. Gainera, hamaika ekintza prestatu dute haren etorrera ospatzeko. Horra, horra...**

Kitto! Amaitu da urtea! Baina ez ipini triste; izan ere, Gabonak iritsi dira, eta, horiekaz batera, gure Olentzero maitea. Abenduaren 24tik 25erako gauean bisita-tuko gaitu, urtero legez: opariz gainezka iritsiko da Getxoko etxeetara. Hori ospatzeko ekimen asko egingo dira auzoz auzo, ohiko kalejirak tarteko, Olentzerori abesteko. Baina goazen apurka.

Algortan, Horra Horra Olentzero batzordeak abenduaren 23an abiatuko ditu ospakizunak Geltokia plazan, arrastiz; besteak beste, Patata Tropikala pailazo taldea, Mikel Hats erromeria taldea, bertso-saioa, Taberna Ibiltaria eta pintxo interkulturalen dastaketagaz gozatuko dute ume eta nagusiek. Abenduaren 24rako, barriz, umeentzako jarduerak prestatu dituzte Zabala eskolan, goizez. Kalejira 17:00etan hasiko da eta, 18:00etatik aurrera, musika eta txokolate-jana izango dira Villamonten. Portu Zaharrean Olentzeroren kondaira azalduko dute, eta musika eta kantak izango dira. Olentzero 20:00etan erreko dute Algortan.

Getxoko Itxas-Argia dantza taldeak ere abenduaren 23rako antolatu du jaia,



Mikel Hats taldeak erromeria eskainiko du Algortan, abenduaren 23an

Malakate parkean: musika, txistorra-jana, txitxiburduntzia e.a. dastatu ahalko dira. Biharamunean, ordea, kalejira abiatuko dute kiroldegitik, 17:00etan. Amaitutakoan, musika eta txokolate-jana izango dira Malakaten.

Abenduaren 22an hasiko dira ospakizunak, eta 24an, kalejirak egingo dituzte auzoz auzo

Areetan ere egongo da zer gozatu, Berantzagi dantza taldeagaz. Hilaren 23an umeentzako jarduerak egingo dituzte Eskoletako plazan, 19:00etatik aurrera. Hurrengo egunean, barriz, goizean izango dira jarduerak: Olentzeroren irudia eta perretxikoen erakusketak, tailerrak, ipuin-kontalaria, dantza-erakus-

taldia eta bertso-saioa. Kalejira arrastiko 18:30ean hasiko da.

Aldameneko auzoan, Romon, Zasi Eskola dantza taldea, Zitzu Bizian eta Jai Batzordeak antolatu dituzte ekitaldiak. Olentzerori gutuna eman ahalko zaio 23ko arrastian, eliza arkupean, eta, abenduaren 24an, umeentzako jarduerak izango dira plazan. Mokadutxo ere jango dute eguerdian eta 17:30ean hasiko da kalejira. Pare bat ordu beranduago izango da dantza erakustaldia, txokolate-jana eta Olentzero erretzea.

Azkenik, Negurin ere ospatuko du Olentzero eguna Gobela ikastetxeak. Abenduaren 22an egingo dute kalejira, 18:00etatik aurrera, eta, amaitutakoan, txokolate-jana izango da Gernika parkean. Ikus daitekeenez, Olentzerok inbadituko du Getxo; beraz, ondo pasa! ○

Bizi-kalitatea hobetzeko

Zainduz hitzarmena sinatu du Udalak



Mendeko pertsonen zaintza erraztu eta bizi-kalitatea hobetzea da helburua

Zainduz hitzarmena sinatu dute Getxoko Udalak eta Bizkaiko Aldundiak. Zertarako? “*Beren etxeetan bizi eta mendetasuna duten adinekoei eta haien familia edo zaintzaileei arreta eta laguntza emateko ekintzak, diru laguntzak eta zerbitzuak garatzeko*”.

Zentzu horretan, helburua da zaintza afektiboa eta gertukoa ematea. Udaletik adierazi dutenez, pertsona horiek beren etxeetan geratzeko lortuko lukete, “*haien bizi-kalitatea hobetuz*”. Izan ere, “*familian etengabeko zaintza iraunkorrak eragiten duena murriztearen alde lan egin*” gura dute.

Hitzarmenak hainbat ekintza garatuko du, besteren artean, ondokoak eskainiz: autonomia pertsona sustatzeko jarduerak astia dibertsifikatzeko, Nagusien

Etxearen bitartez; mendetasuna eta zaintzari buruzko informazio eta sentsibilizazio jarduerak, zaintzaileen egoera jakitera emanez eta zaintza-erantzukizunak partekatuz; gizarte eta boluntariotza-jarduerak sustatzeko ekimenak, mendetasun egoeraren dauden adinekoei eta haien familiei laguntzeko; prestakuntza eta informazio zerbitzuak zaintzarako gaitasun eta tekniketan trebatzeko; bere buruaren zaintzarako estrategietan laguntza psikologikoa emateko zerbitzua.

Azken arlo horri dagokionez, zaintzaileak taldekako bilerak egingo dituzte beren esperientziak parteka ditzaten; horrela, emozio gainkarga eta “*gizarte bakartasuna prebenitzeko tresnak*” lortzeko dituzte parte hartzaileek. ○

Info+: www.getxo.net

IRRATI TAILERRA

Getxoko Etorkinak Plataformak eta Udalak, hainbat jarduera antolatu dute Migratzaileen Nazioarteko Eguna dela eta (abenduaren 18an ospatu zen). Hil honetan hainbat ekimen garatu dute, eta, datorren urterako, irrati tailerra antolatu dute, “*irratian trebatu, kultura aniztasuna lantzen duten taldeetan lan egin eta egungo giza zein kultura arazoei heldu gura dieten*” laguntzat. Urtarrilaren 7tik martxoaren 24ra izango da eta 18 urtetik gorakoek parte har dezakete.

FADURAKO TXIKIGUNEAN ORDUTEGI BEREZIA

Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era ordutegi berezia eskainiko du Fadurako Txikiguneak. Zerbitzu hori 3 eta 12 urte bitarteko umeei zuzenduta dago. Hainbat prezio dago, parte hartu gura den ordu edo egun kopuruaren arabera, baina, betiere, 44 eta 85 euro bitartekoa izango da. Bestalde, Kirol Kanpusak eskainiko dituzte Getxo Kirolak eta herriko hainbat kirol klubek. Informazio gehiago dago Getxo Kirolak elkartearen webgunean.

Info+: 946 016 092 edo txikigune@gmail.com

EXTREME MAN 113 TRIATLOIA GETXON

Getxon izango da Extreme Man 113 Getxo-Basque Country triatloia, 2012ko maiatzaren 13an. Distantzia luzeko eta goi mailako nazioarteko triatloia da eta 2010ean sortu zuten; Win Sports Factoryk antolatuko du, Udalaren laguntzagaz. Euskal Herriak lehenengoz hartuko du nazioarteko zirkuituko proba, eta 500 parte hartzaile batzea espero dute antolatzaileek. Lasterketa Ereaga hondartzan hasiko da goizeko 07:30ean eta, guztira, 113 kilometroko distantzia izango du: 1.900 metro igerian, 90 kilometro txirrindulaz eta beste 21 kilometro korrika. 1994an edo lehenago jaiotakoek parte hartu ahalko dute, eta, dagoeneko, izena eman dezakete probaren webgunearen bitartez.

Info+: www.extreme-man.com

Lorezaintza
zerbitzu orokorrak

Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algoriteños
"Amumak"

Asteazken poetikoak
Itxas Fundazioa
Euskara eta Algoritako izenak
Alzheimer, 3.Adina, Boluntarioak

<http://www.algorita.org>
<http://amumak.getxo.net>
e-mail: sotaventaster@gmail.com
Móvil: 656773080

Garaizar
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illeta kalea 1 • ALGORTA

Jose Ignacio Churruca > maketa-egilea

“Polita litzateke Udalak lekua egitea maketei, herritarrei oroitzapenak dakarzkielako”



Maketak ikus daitezke www.getxoenminiatura.com gunean

Badirudi zaletasun batzuk antzinakoak direla, gaur egun modaz pasatuta baleude bezala. Horietako bat ekarri gura izan dugu orriotara, Jose Ignacio Churruca getxoztarrarena: zaletasun batzuk bizirik dira utela erakusten dute bere maketek. Churrucak Getxoko eraikin ospetsuenak egin ditu eskuz, egurra eta berniza baliatuz, baina tamaina txikian: bere txaletagaz hasi zen eta 30etik gora etxe egin du dagoeneko, baita itsasontziak ere. Asko dira, bai, baina arriskurik ez dago: Getxo herri handia da eta, bere eraikin zerrenda, amaiezina.

—Ez da ohikoa zure zaletasuna, nondik datorkizu?

—Aitak eskulanak gogoko zituen. Benetako itsasontzi baten maketa egin zuen, gure arbaso batek Trafalgarreko gudan gidatutako ontziarena; bertan hil zen arbasoa. Txikitan hasi zuen maketa, baina hamar neba-arreba ginen eta, urte asko igaro ostean amaitu zuen, erretiroa hartzean. Duela zenbait urte hil zitzaidan anaia bat, eta, orduan, txikitako oroitzapenak etorri zitzaizkidan burura: Maria Cristinako txalet batean hazi ginen, eta

haren maketa egin nuen, txaleta eraitsi baitzuten. Nahiko polita atera zitzaidan eta une ederrak igaro genituen senide artean, etxea oroitzen. 1990ean izan zen hori, eta, ostean, San Ignacio eliza egin nuen; bertan bataiatu gintuzten anai-arrebak. Elizaren ondotik hasi nintzen Getxoko etxe ospetsuenen maketak egiten. —Planoen gainean egiten dituzu? —Ez beti. Adibidez, Lezama-Legizamon jauregia egiteko ez neukan planorik eta argazkiak ateratzeko baimena eskatu nien. Argazki horietan bilatu nituen erre-

ferentziak, eta, hortik abiatuta, maketa egin. Egia esan, hasieran horrela egiten nituen guztiak, harik eta artxibo historikoaren barri izan arte. Halere, hura ez da batere ona eta plano gehienak erdizka daude; baina, ahal dudala, horiek erabiltzen ditut. Gainera, egiten ditudan eraikin batzuk dagoeneko ez daude. Horrelakoetan, argazki zaharrak eta postalak ere baliatzen ditut plano gisa.

«Txikitan bizi ginen txaleta egin nuen lehenik, eraitsi zuten-eta»

—Getxokoak ez diren maketak ere badi-tuzu, ezta?

—Baina oso gutxi dira, kasu bereziak: enkarguz, atentzioa eman didatelako edo antzeko zer edo zer dela-eta. Oparitu edo saldutakoak barriro egiten ditut, guztiak gorde gura ditudalako nire bilduman.

—Nolakoak dira?

—Maketak egurrezkoak dira eta kristalak metakrilatoagaz egiten ditut. Orokorrean, 60x40 zentimetro neurtzen dute, eta, altueran, 30 zentimetro. Trastelekuan gordetzen ditut gehienak, itsasontziak izan ezik. Orain 30etik gora dauzkat, eta guztira, 40 inguru egin dut. Egia esan, leku barik lotzen ari naiz, eta, orain, koadro moduan egiten ditut.

—Badaukazu erakusteko asmorik?

—Erakusketak egiteko ez, oso konplikatu da-eta: ezin dira pilatu bata bestearen gainean, eta beraz, oso zaila da garraiatzea. Baten bat badaukat hortik, baina erakusketa handirik ezin dut egin. Halere, polita litzateke Udalak leku bat ematea, herritarrei oroitzapenak datozkielako maketak ikustean. Askotan hitz egin dut, baina, oraingoz, lekurik ez dute aurkitu. ○

Getxolandia mundiala!

Atrakzioak, simulagailuak eta jolasak urtarilaren **5 arte**, eta **izotz pista 9 arte**



Abenduaren 25ean eta urtarilaren 1ean eta 6an itxiko dute. Argazkia: Getxoko Kultur Etxea

Joan da beste urtebete eta hemen da barriro Getxolandia; umeek beste, nagusiek ere gozatuko dute. Izan ere, atrakzioen zerrenda zabalduz doa urterik urtera. Aurtan, atrakzioez gain, izotz pista, simulagailuak eta jolasak izango dira.

Getxolandiaren kokagune nagusia da Areetako Geltokia plaza; 2.500 metro koadroko karpa ipini dute, ohi legez: zaldiko-maldikoak, ohe elastikoak, dragoiak, karrusela, auto-txokeak, noria eta ume txikientzako ludoteka dauzka. Horrez gainera, zortzi simulagailu ipini dute 8 eta 16 urte arteko erabiltzaileak erakarri asmoz, eta hainbat joko: futboli-

nak, ping-pong eta aire-mahaiak, dantza eta karaoke makinak edota Wii jokoak. Areetako gunerako sarrera 3,50 eurokoa da eta 6 bidaia egin daiteke horregaz. Urtarrilaren 5era arte zabalik dago.

Bestalde, Getxolandiak Algortako Biotz Alai plaza bisitatuko du, bertan kokatu baitute izotz pista. Saioa 45 minutukoa da eta 3,50 euro balio du, patinatzeke ekipamendu guztia barne; urtarilaren 9ra arte erabil daiteke. Bi guneez zabalduko dute 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, eta itxi egingo dute abenduaren 25ean, urtarilaren 1ean eta 6an. ○

ERROMERIA-DANTZAK IKASI GURA?

Herriko jaiak iritsi, erromeria hasi eta zer egin ez dakizula lotzen zara? Fandango eta arin-arina dantzatzea tokatzen denean oinak nola koordinatu ez dakizu? Lasai egon, Getxoko Itxas-Argia dantza taldeak lagunduko dizu-eta. Datorren urteagaz batera abiatuko du ikastaroa, erromerian dantzatzen direnak erakusteko. Urtarrilaren 14an hasi eta apirilaren 28ra arte luzatuko da. Zapaturu elkartuko dira dantzariak Itxas-Argiaren lokalean, 12:00etatik aurrera. Nagusientzako ikastaroa izango denez, 16urtetik aurrerako lagunek parte har dezakete. Izen eman behar da hasiera egunean, lokalean bertan (Orduña Mendatea, 17). Aire, aire!

ANTZERKIA EUSKARAZ GABONETAN, AREETAKO MUSIKA ESKOLAN

Gabonetan beti bada zerbait, kultur egitarauak lepo egon ohi dira. Areetako Andres Isasi Musika Eskola da horren lekuko; izan ere, antzerkiari leku egin dio Gabon hauetan. Lau obra antzeztuko dute egunotan, eta, horietako hiru, euskaraz: abenduaren 27an, *Ipuinaren bila* eskainiko du Txalo taldeak; hilaren 28an, Gabon kontuk antzeztuko du Deabru Beltzak taldeak, eta, abenduaren 29an, Anaki eskainiko du Logela Multimediak. Bestalde, abenduaren 30ean La flor de la Antartida antzeztuko du Erre Producciones taldeak. Lau antzeztanak hasiko dira 18:00etan, eta 4 euro ordaindu behar da sartzeko.

GIZATIAK ELKARTEAREN AZOKA TXIKIA ROMON

Gabonak sasoi ona izaten ei da urteko uzta kalera atera eta erakusteko. Romoko Gizatiar emakume elkarteak urtero antolatzen du Azoka Txikia auzo horretan, eta, aurtan ere, ohiturari eutsiko dio. Abenduaren 26an hasiko da eta urtarilaren 3ra arte iraungo du, astebete pasata. Ohi legez, Romoko Kultur Etxeak hartuko du auzotarren azoka, bertako ordutegian.



liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Irati Astobieta > Berbalagun proiektuaren koordinatzailea

“Guraso-lagun egitasmoak aukera ematen du familia barruan euskara indartzeko”

Bigarren urtea du Berbalagun egitasmoak Leioan, baina aurten, zabalagoa da; izan ere, laster Guraso-lagun abiatuko dute, euskara familia barruan sustatzeko. Berbalagun eta hainbat eskolatako guraso elkarteek parte hartuko dute.

—Berbalagunak ezagunagoak dira, baina, zer da Guraso-lagun proiektua?
—Berbalagun egitasmoaren barruan dago, gurasoen eta eskolaren arteko zubia egiten du euskararen alorrean. Gurasoek seme-alabakaz euskaraz egiteko aukera eskaintzen du, familia barruan indartzeko euskara.
—Herri osoko gurasoek parte hartuko dute ala eskolen bitartez bideratuko duzue?

—Herriko eskolakaz harremanetan ipini gara, proiektua aurkeztu diegu eta euren aukeren arabera gauzatuko dugu, guraso elkarteakaz elkarlanean. Abenduan izan da izen-ematea: umeei eskolan eskuorria banatu zieten, eurek gurasoei emateko; bertan zegoen informazioa eta eskaera orria. Taldeak sortutakoan elkartzen hasiko gara, urtariletik aurrera.
—Zergatik gurasoentzako taldeak?
—Leioan euskaldunak egon badaude,



Guraso-lagun taldeetan parte hartzeko: leioa_berba@aek.org eta 607 632 655

baina euskara ez da asko erabiltzen kalean. Eskolan umeei euskaraz berba egiten dute, baina urteteen, apurketa gertatzen da. Eskolaren eta familiaren artean zubia berreraiki gura dugu euskararen erabilerrari dagokionez. Gainera, orain arte, askok ezin zuen parte hartu berbalagun proiektuan umeak egon behar zuelako. Guraso-lagun egitasmoak hutsune hori beteko du, gurasoak elkartu ahalko direlako plazan, eskola tartetan e.a. Badira

zaletasunen araberrako berbalagun taldeak; berbarako, pala-taldea. Altxagan eta Txomin Arestin ziur abiatuko dira taldeak, eta Betiko Ikastolan ere sortu gura dugu.
—Bigarren urtea duzue Leioako berbalagunek, zelan doakizue?
—Jendeak izena emoten segitzen du eta, Guraso-lagunen alorrean, erantzun ona jaso dugu eskolen aldetik, guraso elkarteek ilusio handia daukate. ○

Autodefentsa tailerra

antolatu du **Leioako Bilgune Feministak** emakumeentzat, **urtarrilaren 14rako**



Izen-ematea: leioakobilgunefeminista@hotmail.com

“Emakumeok egunero milaka eraso jasaten dugu, gizarte bortitz, sexista eta patriarkalean bizi gara-eta: gizarte ordenak indarkeria erabiltzen du emakumeak kontrolatzeko eta menperatzeko”. Bilgune Feministak dioenez, **“autodefentsa da baliabiderik eraginkorrena erasoen prebentziorako”**, eta horregatik antolatu du emakumeentzako autodefentsa **“feminista”** tailerra; urtarilaren 14an egingo dute.

Ikastaroagaz lortu gura dute norberak bere buruagan konfiantza lantzea, biktimaren rola baztertu eta arriskuari aurre egiteko gai direnaren sentimendua uztartzea eta lantzea, eta erasoen aurrean oinarritzko teknikak ikasi eta praktikan

jartzea. Horretarako, maila bi landuko dute: psikologikoa eta fisikoa. Alde psikologikoan, autoestima lantzeko teknikak garatuko dituzte, **“gure baitan dau den indar eta baliabideez kargu egiteko”**; hala-nola: rol-playing, eztabaidak, psikodrama, esperientzia komunak, erlajazio teknikak e.a. Bestetik, alde fisikoari dagokionez, segurtasuna indartuko duten teknikak irakatsiko dituzte.

Tailerra doan izango da eta parte hartu gura duenak izena eman behar du urtarilaren 11 baino lehen, facebook bitartez edo ondoko helbidera idatziz: leioakobilgunefeminista@hotmail.com. Goizez egingo dute eta lau ordu iraungo du, gutxi gorabehera. ○

KULTURA BONUA TRUKATU AHALKO DA KULTUR LEIOAN

Kultur Leioan ere erabilgarri izango da Kultura Bonua. Eusko Jaurilaritzak ateratzen du bonua; 25 euro kostatzen da, baina 40 euro gasta daiteke kultur arloan: liburuetan, ikuskizunetan e.a. Bada, Kultur Leioako ekintzetan ere erabil daiteke: Kultur Leioaren Lagun egin, 2012rako txartela barritu, **Gabonetan antzerkita** programarako eta bestelako ikuskizunetarako sarreren truke balio du. Urtarrilaren 5era arte eros daiteke bonua BBKren orotariko kutxazainetan, www.cajavital.es gunean edota Kutxaren Servikutxa kutxazainetan.

OLENTZEROREN ZAIN? GABONETAN BADAUKAZU ZER EGINIK LEIOAN

Egun gutxi barru bisitatuko gaitu Olentzerok, baina Gabonetan hamaika ikusteko egongo da Leioan: abenduaren 23an, merkatariek gaztain erreak banatuko dituzte, MUGI Leioako Gazteek txokolatea egingo dute Bulebarrean, 19:00etan, eta ipuin kontalaria arituko da Kultur Leioan, 18:00etan. Olentzerori, barriz, 24ko arrastian kantatuko zaio: erdialdean 17:00etan aterako dira kantari taldeak, Lamiakon eta Pinuetan 17:30ean, eta Txorierrin, 18:00etan; San Bartolomen egun bat arinago egingo diote harrera. Gainera, Bulebarrean **Olentzero munduan** erakusketa ipiniko dute abenduaren 26tik urtarilaren 9ra. Baina bestelakorik ere egongo da: Kandelazubieta kiroldegian magia eta antzerki ikuskizunak izango dira urtarilaren 2, 4, 6 eta 8an; Sakonetan esku-pilota tailerra egingo dute Hartzak taldekoek urtarilaren 3an; eta, Aterpe Gaztegunean eta Kultur Leioan, tailerrak eta umeentzako ludotekak izango dira Gabonetan. Azkenik, erregeei harrera izango da urtarilaren 5ean: Kultur Leioara 18:30ean iritsiko dira eta Lamiakon 18:00etan hasiko da kalejira.

udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2

Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

Viajes

Bidaia-agentzia berria Leioan

Estartetxe 19, Tf. 944 63 82 42

es_viajes1375@carrefour.com

Bidaiak guztien eskura

Luberr Basolanak, SL

Axpe ibaiertza 28A

beheko solairua B12 lokala

Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38

Tf. :94 467 17 13

Faxa: 94 467 42 41

luberr@euskalnet.net

www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inautzea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Jose Blanco > Lutxanako ortu komunalak

“Bakoitzak bere ortu zatia lantzen du, baina bilera orokorrean hartzen ditugu erabakiak”

Iragan udabarrian ortu komunalak lantzen hasi ziren Lutxanan, parkearen alboan. Keli taldeak abiatu zuen proiektua, eta, dagoeneko, lursail osoa lantzen dute 15 bat lagunek. Ortu ekologikoak dira eta komunean hartzen dituzte erabakiak, bileraren bitartez.

—Ortu komunalak lantzen dituzue, zehazki zertan datza egitasmoa?
—Ekologikoak eta komunalak dira: bile-
ra bitartez funtzionatzen dugu. Ideia zen
udal-ortuak egitea, baina komunean
lantzea. Hasieran Udalak baiezkua eman
zigun, baina, azken unean, ekimen pri-
batu bat sortu zen; horregaz ortu ekolo-
gikoen kupoa asetzen dela deritzo.
Nahiko txarto hartu genuen ekimen pri-
batu batez alderatzea, gure ekimena
doakoa baita: irabazi-asmorik gabekoa.
—Eta lantzeko lursaila topatu zenuten?
—Bai, Lutxanako parkearen alboan,
zaborteia ustiatzen duen enpresak laga
zigun; laster Udalaren esku geratuko da.
Parte hartzaile gehienak erandioztarrak
dira, eta egungo kudeatzaileak lutxana-
rrak. Baina asmoa da Keli albo batera
geratu eta bilerak kudeatzea proiektua.
—Bakoitzak zati bat lantzen duzue?
—Lursaila partzelatan banatuta dago.



15 bat lagunek lantzen dute Lutxanako lursaila

Bakoitzak bere zatia lantzen du, baina
lan komunak ere badaude, eta gaika
banatzen ditugu taldeak: kudeaketa,
lorenzaintza, mantentze-lana etab. Hilean
behin, bilera orokorrean hartzen ditugu
erabaki nagusiak, guztion artean.
—Parte hartzeko zer behar da?
—Gutxienekoak daude: ortuak ekologi-
koak behar dute, eta, ahal dela, bertako
haziak erabili. Bestalde, estetika-irizpide
jakin batzuk bete behar dira: ortuak poli-
to egon behar du, bateratasun bat lortze-

ko. Orain partzela guztiak beteta daude,
baina etengabeko jarioa dago. Horre-
gatik osatu gura dugu jende poltsa, aha-
lik eta pertsona gehienak eska diezaion
Udalari proiektuagaz bat egiteko. Izan
ere, lurra herriarentzat berreskuratzea da
ideia. Laster Udalaren esku lotuko da
lursaila eta uste dugu proiektuagaz
jarraitu ahalko dugula; lurrok ez dute
beste ezertarako balio eta ez dugu uste
arazorik izango denik. Areago, espero
dugu proiektua zabaltzen laguntzea. ○

Horra, horra!

Badator **Olentzero**, auzoz auzo ibiliko da 23
eta 24an, **eta erregeek** hartuko diote lekukoa



Erandioigoia eta Arriagara 23an hurreratuko da Olentzero, eta, beste auzoetan, 24an

Badator, hemen da laster batean, nor
eta Olentzero! Zaku bete opari etorriko da
aurten ere, hutsik egin barik. Ohitura
denez, auzoz auzo ibiliko da herritarrek
kantatu bitartean. Erandion abenduaren
23an eta 24an izango dira kalejirak.

Erandioigoia eta Arriagara 23an
hurreratuko da Olentzero. Lehenean,
Goi-Alde dantza taldeak antolatu ohi du
eta 18:00etan hasiko da. Arriagan, barriz,
16:00etan ekingo diote kalejirari.

Biharamunean Lutxana, Altzaga eta
Astrabuduan egingo diote harrera, 24an:
Lutxanan 11:00etatik aurrera izango da;
Astrabuduan umeentzako jarduerak izan-

go dira goizean eta kalejira 18:00etatik
aurrera (Ignacio Aldekoa ikastetxean hasi
eta Jose Andres Mendiguren plazan amai-
tuko da); Altzagan, Uztargi Dantza
Taldekoak Bekoa ikastetxetik urtengo dira
17:30ean, eta, Gautxoriak, Altzagako
Guraso Elkartea zein Gazte Asanblada,
San Jeronimotik abiatuko dira 18:30ean
eta antzezpena egingo dute 20:00etan,
Irailaren 23a plazan.

Bestalde, urtarilaren 5ean Errege
Magoen kalejira izango da Astrabuduan,
18:00etatik aurrera. Altzagako Jado ikas-
tetxean, barriz, umeen gutunak jasoko
dituzte, ordu berean. ○

BERTSO-JIRA 23AN, ALTZAGAN

Ez da ohitura makala poteoarena, eta,
kantuz lagunduta bada, askoz hobeto!
Horregatik, bertso-jira antolatu du Berbots
Erandion Euskaraz Elkartek abenduaren
23rako, barikurako, Altzaga auzoan.
Onintza Enbeita eta Igor Elortza eskutik
ibiliko dira erandioztarren belarriak
gozatzen 20:00etatik aurrera. Gainera,
Oxabi erromeria taldeko lagunak izango
dituzte alboan musika jotzen. La Plaza
tabernan ipini dute hitzordua, baina,
ondoren, kalez kale eta tabernaz taberna
ibiliko dira kopla kantari. Segi hurrengo
tabernara alde egin orduko!

ALDI BATERAKO 19 BEHARGIN KONTRATA-TUKO DITU UDALAK

Laguntza kontributiborik izan ez eta diru
sarrerak bermatzeko errenta kobratzen
duten 19 langabetu kontratatuko ditu
Udalak Behargintzaren bitartez, 6
hilabeterako. Horietatik 13 gazteak izango
dira: 18 eta 30 urte bitartekoak. Ondoko
lanbide-profilak eskatuko ditu: 3 etxeko
laguntzaile, administrari laguntzaile bat, 6
obretako peoi, obretako enkargatu bat eta
8 aisialdiko begirale. Informazio gehiago
eskainiko dizute Udal-bulegoetan.

Info+: www.erandio.net

ALTZAGAKO KALE BI BARRITUKO DUTE

Txapela eta Nafarroa Beherea kaleak
barritzeko lanak abiatuko ditu Udalak 2012
hasieran. Asmoa da “*hirigunean oinezkoen
irrigarritasuna hobetu eta bide publikoen
kalitatea handitzea*”. Horretarako, oztopo
arkitektonikoak kenduko dituzte, espaloiak
beheratuko dituzte eta barriro urbanizatuko
dituzte kaleak. Lan handiago baten
abiapuntua besterik ez dira Txapela eta
Nafarroa Beherakoak; izan ere, “lanek
jarraipena izango dute beste kaleetan”.
Lehen txandak lau hilabete iraungo du.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak

Zurezko Egiturak

Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144

ET

<http://www.etxeart.com>

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

MUNDUKO BODYBOARD
TXAPELKETA IRABAZI DU
EUNATE AGIRREK

Eunate Agirre sopeloztarrak sariak eskuratzen jarraitzen du. 2009. eta 2010. urteetan munduko bodyboard txapeldunordea izan eta gero, azkenean bere helburua lortu egin du eta munduko bodyboard txapelketa irabazi du. Azoreetan ospatutako IBA Tour zirkuituan, bere lehiakideak mendean hartu zituen Agirrek: Mayla Venturin finalaurrekoetan eta Isabella Sousa finalean. Proba amaitzerakoan, Agirre “oso pozik” agertu da eta txapelketa “azken urteetan egindako lanari esker” irabazi duela adierazi du.

LAU T’ERDIKO ELITE
TXAPELKETA, SOPELAN

Euskadiko Pilota Federazioaren eskutik, aurten Lau T’erdiko Elite Txapelketa Sopelan ospatuko da barriro. Final-laurdenak abenduaren 23 eta 24an jokatu dira, 19:00etan eta 17:30ean, hurrenez hurren. Finalerdiak abenduaren 30ean jokatu dira eta finala, barriz, urtarrilaren 6an goizeko 11:30ean. Hego Euskal Herriko pilotaririk onenak parte hartuko dute: Ezkurdia, Antxia, Mendiuneta, Larrañaga, Ansotegi, Altzelai, Amantegi eta Elezkano.

UDALAK ‘BIZIKIDETZA’
ARAUTU BEHARKO DU

Sopelako Udalak ‘bizikidetza’ arautuko duen ordenantza prestatu beharko du martxoa heldu baino lehen. Hala adostu zuen Sopelako Udal Bilkurak, PSE eta EAJren aldeko botoei esker. Horren bidez, “espazio publikoen okupazioa eta debekatutako jarrerak” arautuko dituzte, esaterako: edari alkoholikoen salmenta eta kontsumoa, kartel eta margoketak, hiri-altzarietan kalteak sortzen dituzten jarrerak e.a. Bildu ez da mozioaren alde agertu, euren ustez, “Sopelan beharrezkoa ez delako”. Alkatearen arabera, “ez da horretarako momentua, ez edukien aldetik ez erabilgarritasunaren aldetik”.

Gabonetarako prest!

Olentzerok eta **Mari Domingik** kalejira egingo dute **abenduaren 24an**; jantzi baserritar!



Abenduaren 21ean eta 29an haur-antzerkiak antolatu dituzte

Gabonetan jarduera ugari izango dituzte eskura sopeloztarrek. Olentzero eta Mari Domingiren kalejirak emango die hasiera egitarauari, abenduaren 24an. Arrastiko 17:00etan, Larrabasterratik abiatuko dira dantzari, trikitilari eta albokariaren laguntzagaz. Udaletxe plazan, harrera egin eta gaztain erreak banatuko dituzte. Herritarrek baserritar janztera animatu du Kultur Etxeak.

Abenduaren 26tik 30era bitartean, txikienek Gabonetako Jolas Parkeaz gozatzeko aukera izango dute, Urko kiroldegian. Ordutegia 11:00etatik 14:00-

etara eta 17:00etatik 20:00etara izango da, debalde. 29an 19:00etan, ‘Ipuinaren bila’ haur-antzerkia egongo da ikusgai Kurtzion, hiru euroren truke. Urteari ondo etorria emateko, barriz, urtarrilaren 1ean ‘Urte Barri’ haurrentzako antzerkia izango da Kurtzion, 13:00etan, debalde. Eta urtero legez, urtarrilaren 5ean Errege Magoen txanda helduko da eta kabalgata egingo dute arrastiko 17:00etan Larrabasterratik udaletxe plazaraino. Azkenik, egun bi beranduago Skate Indoor tailerra eta txapelketa antolatu dute Zipiriñen. o

Mikel Gorrotxategi > Euskaltzaindiko Onomastika Batzordea

“Bizkaian euskal izena ofizialdu barik herri bi baino ez daude: Bilbo eta Sopela”



Algortarrak Sopelako toponimiari buruzko hainbat bitxikeria kontatu zituen

Azaroaren 29an “Gure leku izenak: Sopelanatik Sopelara” hitzaldia antolatu zuen Udalak, Euskara Jardunaldien barruan. Mikel Gorrotxategi Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeko idazkari algortarra izan zen hizlaria. —Urteak daroaguz ‘Sopela’ eta ‘Sopelana’ izenen arteko eztabaidagaz... —Bai, oraindino ‘Sopela’ ez delako ofiziala. Esango nuke Bizkaian euskal izena ofizialdu barik herri bi baino ez direla: Bilbo eta Sopela. Espero dut laster gauzak aldatzea eta behingoz Sopelak euskarazko izena edukitzea ofizialki. —Beraz, zure ustez, ‘Sopela’ da euskarazko izen zuzena.

—Euskaraz badago lege fonetiko bat, historian indarrean egon dena. Lege horren arabera, euskara zaharrean, konsonante ‘n’ bi genituen, latinez bezala. Euskara, bat-batean, ‘n’ bi izatetik ‘n’ bakarra izatera pasa zen. ‘N’ hori, bokal artean zegoenean, desagertu egin zen. Hau da, ‘ardano’ eta ‘gaztana’ esatetik

pasatu ginen ‘ardau’, ‘ardoa’ eta ‘gazta’ esatera. Baina euskaldunok esaten dugu ‘gaztanbera’ eta ‘ardandegi’. Hor ikusten da ‘n’ bat egon zela. Aldaketa horiek gertatu ziren, baina administrazioek gorde zituzten euskarazko izen zaharrak. ‘Sopelana’ da euskarazko izen zaharra, baina ‘Cesar Augusta’ Zaragozaren izen zaharra den bezalaxe. ‘Sopela’ da erdaraz gorde den hamargarren mendeko euskal izena.

“Atxabiribil’ izena hizkuntzaren aldetik gaizki eginda dago”

—Horretaz gain, Sopelak toponimia-ondare nahiko zabala ei du...

—Bai. Niri izugarri gustatzen zait ‘Atxabiribil’ toponimoa. Izena hizkuntzaren aldetik gaizki eginda dago. Euskaraz hitza eta adjektiboaren artean ez dugu artikulurik ipintzen; ez dugu esaten ‘mutila polita’. Baina Atxabiribilen ba-daukagu ‘atxa’, artikulua eta guzti. o

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

OINUTSIK
KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

**ANDER
DEVNA
IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

UDALBATZAK EZ DITU
AURREKONTUAK ONARTU

Berangoko udalbatzak ez du momentuz adostasunik lortu 2012. urteko aurrekontuak onartzeko. Azaroaren 24ko udal-bilkuran, EAJk egindako aurrekontu-proposamenak PSEko zinegotziaren aldeko botoa jaso zuen; guztira aldeko sei boto batuz. Aurka, baina, Bildu, PP eta EB agertu ziren; zazpi boto guztira. Akordiorik ez bada lortzen, 2011ko aurrekontuak luzatu beharko dira hurrengo urtean. Tokiko Gobernuak 6,2 milioi euroko aurrekontua proposatu zuen, 2011koa baino %18 gutxiagokoa. Haatik, Kukullaga Goikoa errota erostea aho batez onartu zuten alderdi guztiek. 200.000 euroren truke, Udalak XVII. mendeko baserria, 2.200 m²-ko lurzorua eta mendian dagoen 2.275 m²-ko lursaila erosi du. Kukullagan egun bizi diren baserritarrek bertan bizitzeko aukera izango dute bizi artean. Etorkizunean erabakiko da errotaren erabilera zein izango den. Hainbat aukera dagoen arren, bertan interpretazio-gunea zabal daitekeela adierazi du Udalak.

IKASGELEN ORDUTEGIA
HANDITU DUTE

Ikasketa garaia dela-eta, Berangoeta Kultur Etxeko ikasgelen ordutegia zabalduko dute gabonetan. Ohiko ordutegiaz gain, goizeko 09:00etatik eguerdiko 14:00etara eta arrastietan 16:00etatik 20:00etara zabalik egongo dira gelak, ondorengo egunetan: abenduaren 3, 4, 10, 11, 17 eta 18an eta urtarrilaren 7, 8, 14, 15, 21 eta 22an. Zorte on!



JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Aspertzetik ez **gabonetan!**
Olentzeroren kalejira ez ezik, makina bat jarduera antolatu du **Kultur Etxeak**



Errege Magoen kabalgata urtarrilaren 5ean 19:30ean jaitsiko da Berangoetatik

Kultur Etxeak nagusi eta batez ere umeentzat hamaika jarduera antolatu du gabonetarako. Olentzeroren jaitsiera izango da programaren ekitaldi nagusia. Urtero legez, abenduaren 24an 18:30-ean kalejira egingo da Berangoetatik frontoiraino, eta bertan Olentzerori harrera egingo diote.

Abenduaren 26an ‘Gabon Kontuk II’ umeentzako antzerkia izango da Berango Antzokian, 18:00etan; 27an Potxin eta Patxin pailazoen txanda helduko da arrastiko 18:00etan; eta 28an antzerkia bueltatuko da barriro Gan-

so&Cia taldearen eskutik, 18:00etan. Pilotalekuan ere hainbat ekintza antolatu du Kultur Etxeak. Abenduaren 29an eta 30ean haur-parkea izango da bertan: ludoteka, puzgarriak, zezen mekanikoa, tailerrak e.a. Urtarrilaren 2 eta 3an, barriz, gazte parkearen txanda helduko da: rokodromoa, jumping e.a. 5ean 19:30ean Errege Magoen kabalgata hasiko da Berangoetan, eta ondoren disko-festa izango da DJ Xaiborregaz frontoian. Azkenik, 7 eta 8an, pailazoak eta haur-antzerkia egongo da. Ondo pasa! ○

Adi ibili erosketakaz!

Mankomunitateak **bitartekaritza zerbitzua eskaintzen die** eskualdeko kontsumitzaileei



Zerbitzua debaldekoa da eta Mankomunitateko herri guztietan eskaintzen da

Gabonetako opariak direla eta, jendez lepo dabilta dendak egunotan. Baina askotan, produktu edo zerbitzu bat erosi ostean, kontsumitzaileak aldatu gura izaten du: egoera kaskarrean dagoelako, opariak ez duelako esperotako arrakasta izan edo bestelakoengatik. Produktua aldatzera joaterako orduan, baina, batzuetan arazoak sortzen dira, enpresak kontsumitzaileari eskubide hori urratzen diolako. Kontsumitzailea, barriz, nora jo ez dakiela lotzen da.

Bada, Uribe Kostako Mankomunitateak horrelako kasuetan bitartekaritza lanak egiteko zerbitzua eskaintzen du. Kontsumo sailean teknikari bi daude beharrean: Itziar Ladislao (Berango eta Sopelarentzat) eta Lorena Maceda (Mankomunitateko gainontzeko herrietarako). Hainbat herritan txandakatzen direnez, beharrezkoa da alde zuretik hiztordua eskatzea, baina telefonoz (946

579 281) edo e-postaz (omic1@uribekosta.org Berango eta Sopelarako eta omic2@uribekosta.org gainontzeko herrietarako) egin daiteke.

Telefono konpainiengatik jasotzen dute kexa gehien Mankomunitatean

Erosketak egiteko orduan, hainbat gomendio ematen dituzte Kontsumo sailekoek: “*Ez badakigu erosiko duguna itzuli beharko dugun, dendariari galdetu behar diogu ia gero horretarako aukera daukagun*”. Tiketa gordetzea oso garrantzitsua da, gero erreklamazioak egiteko eskubidea izan dezagun. Mankomunitatean, telefono konpainiengatik jasotzen dute kexa gehien. SMS bidezko zerbitzuek ere kexa ugari jasotzen dute, izena eman ostean, gaitza delako bertan behera uztea. ○

Info+: www.uribekosta.org/eu/p/consumo



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: biibao@limpiezasvillar.com



Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96





Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

OPARIAK MODA GAZTEA



Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa

Ikaskuntzaren Zailtasunak
(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Basarrate 20 Ionia 48991 (Algorta-Getxo)
TF. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

ESKUALDE OSOAN IBILIKO DA OLENTZERO!

Zorionekoak dira Uribe Kostako umeak. Izan ere, aurtten Olentzerok eskualde osoko herrietan egingo du kalejira. Barrikan lehenengoz egingo dute, baina horretarako herritarren laguntza eskatu dute. Udal Kultur Guneak antolatuta, abenduaren 23an arrastiko 17:00 aldera urtego dira, Goierriko Ander Deuna aretotik. Bidean gozokiak banatu eta musikak lagunduta, 18:30 aldera helduko dira frontoira. Gainontzeko herrietara abenduaren 24an helduko da Olentzero. Gorlizen, esate baterako, 17:30ean hasiko da kalejira, Eleiz Plazatik. Urdulizen ordu erdi beranduago hasiko da, Igeltsera industria-guneko parkinetik, udaletxeraino. Lemoizen 18:00 aldera hasiko da, eta herriko hiru auzoak zeharkatuko ditu. Armintzan amaitu eta txokolatada egingo dute bertan. Azkenik, urtero legez, Plentzian mitologia oinarri duen antzerki berezia antolatu du Olentzero Batzordeak. Dozenaka lagunek parte hartzen du bertan, baina are gehiago dira ikuskizuna ikustera hurreratzaren direnak. Hitzordua 19:00etan jarri dute, Eleiz Plazan.

IV. SUDOKU TXAPELKETA PREST GORLIZEN

Laugarren urtez, sudoku txapelketa antolatu du Gorlizko Zuentzat Kultur Elkartek. Lehenengo sailkapenak abenduaren 24an ospatuko dituzte, 11:00etatik 12:30 arte, Batzokian. Finala, barriz, astebete beranduago egingo dute, urtarrilaren 31n, ordu eta leku berean. Eman izena!

URDULIZ

Santa Marinako hegala, basobarritze lanetan



Espezie inbaditzaileak kendu eta 76 zuhaitz landatuko dituzte

135.000 euroko aurrekontua bideratu-ko du Urdulizko Udalak Santa Marinako mendi-hegalak basobarritzeko. Lanak 13.793 m²-ko zabalera duten hainbat lur-zorutan egingo dituzte, haitzen inguruan. Hasteko, makina mekanikoak erabilita zaborra kendu eta eremu osoa garbituko dute, interesgarriak diren zuhaitzak mantenduz. Espezie inbaditzaileak kendu, eta garbitutako eremuak lur begetalagaz bete-ko dituzte. Era berean, 76 zuhaitz landa-tuko dituzte: 41 haritz kandudun eta 35

pago lizar. Amaitzeko, bide txiki bat sor-tuko dute zuhaitzen artean, bankuakaz. Urdulizko Udalak nabarmendu duen legez, basobarritzeari esker CO₂ emisio-ak gutxituko ditu Urdulizek (egun 6,5 CO₂ tona igortzen ditu urtean atmosfe-rara). Baso-masa handituko denez, berta-ko fauna areagotuko dela aurreikusi dute. Halaber, basobarritzeagaz, suteak gertatzeko arriskua gutxituko da. Udalaz gain, Mankomunitateko Ekogunek ere parte hartuko du proiektuan. ○

Abe. 21 - Urt. 15

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Muga ikusezinak.** Abenduaren 29 arte. Algortako Kultur Etxean.

LEIOA

► **Olentzero munduan.** Abenduaren 26tik urtarrilaren 9ra. Bulebarrean.

MUSIKA

GORLIZ

► **Gabonetako kantaldia.** Abenduak 23, 20:00etan. Elizan.

GETXO

► **Sweet Oblivion.** Abenduak 29, 20:00etan. Romoko West Side Bar tabernan. Doan.

LEIOA

► **Zing Zang dantza ikuskizuna.** Abenduak 30, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.

► **Leioako Musika Banda + Orpheo Ganbera Abesbatza.** Urtarrilak 8, 19:00etan. Kultur Leioan. 3 euro.

► **Pop-rock lehiaketaren CD aurkezpena.** Urtarrilak 7, 21:30ean. Kultur Leioan. Gonbidapenagaz.

ANTZERKIA

GETXO

► **Ipuinak: Gabonetako abenturak.** Abenduak 22, 18:00etan. Algortako haur-liburutegian.

► **Gabon kontuk.** Abenduak 28, 18:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 4 euro.

► **Anaki.** Abenduak 29, 18:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 4 euro.

BERANGO

► **Gabon kontuk II.** Abenduak 26, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.



www.coralondarreta.com

► **Musika**

Ondarreta abesbatza Santa Ana parrokian

Ondarreta abesbatzak *Gabonak munduan* diskoa argitaratu du eta bi kontzertu emango du aurkezteko. Lehena eskaini du dagoeneko, baina abesbatza entzuteko bigarren aukera izango da abenduaren 27an, Areetako Santa Ana parrokian; 20:15ean hasiko da. Hainbat Gabon-kanta biltzen du diskoak, abesbatzak eta ganbera orkestrak iaz Algortako Salbatzailearen elizan eskaini kontzertuan zuzenean grabatutakoak. Ezagunak batzuk eta ez horren ezagunak besteak, gabon kante osatutako errepertorioa eskainiko dute. Kanta batzuei moldaketa barri eta harrigarriak egin dizkiete eta Areetan entzun ahalko dira; diskoa, barriz, Bizkaiko Zubiko dendan eskura daiteke.

• **Non:** Areetako Santa Ana elizan • **Noiz:** Abenduak 27, 20:15ean

► **Patxin eta Potxin.** Abenduak 27, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

► **Gari, Montxo eta Joselontxo.** Urtarrilak 7, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

► **Dinosauro egitasmoa.** Urtarrilak 8, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

LEIOA

► **El fantástico viaje de Jonas...** Abenduak 26, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.

► **Kraft.** Abenduak 28, 18:00etan. Kultur Leioan. 5 euro.

► **Printzea eta ahatea.** Abenduak 29, 18:00etan. Kultur Leioan.

Sarrera: 5 euro.

URDULIZ

► **Hator, hator... Olentzero dator!** Abenduak 27, 18:00etan. Kultur Etxean.

SOPELA

► **Ipuinaren bila.** Abenduak 29, 19:00etan. Kurtzio Kultur Etxean. 3 euro.

PLENTZIA

► **Ipuin kontaketa.** Urtarrilak 2, 11:30ean. Goñi Portalen.

► **Txutxu eta Mutxu pailazoak.** Urtarrilak 4, 12:30ean. Goñi Portalen.

ZINEMA

GETXO

► **Gotzon Elortzaren dokumentalak.** Abenduak 23, etengabeko proiektzioa. Algortako Azokako aretoan.

► **Zine-kluba: Balada triste de trompeta.** Abenduak 30, 21:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,90 euro.

BESTEAK

GETXO

► **Getxolandia.** Urtarrilaren 5era arte. Areetako Geltokia plazan.

BARRIKA

► **Bertso-afaria.** Abenduaren 23an, 21:00etan. Nagusien Etxean. ALBEko bertsolariak. 20 euro. Izen-ematea Udal Kultur Gunean.

GORLIZ

► **Gabonetako apaingarrien tailerra.** Abenduak 23, 19:00etatik 21:00etara. Gaztelekuan.

► **Umeen Gabonetako parkea.** Abenduak 27 eta 30, eta urtarrilak 3. Pilotalekuan.

SOPELA

► **Skate Indoor: tailerra eta txapelketa.** Urtarrilak 7. Zipiriñen.

BERANGO

► **Haur parkea.** Abenduak 29tik urtarrilaren 3ra. Pilotalekuan.

► **Gazte parkea.** Urtarrilak 4, 17:00etatik 20:00etara. Pilotalekuan.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Euskararen alde

Euskal Kulturaren Jardunaldien baitan hamaika ekitaldi eta gehiago egin dituzte Getxon, azaroan eta abenduan. Itxartu dantza taldeak kalejira polita gauzatu zuen abenduaren 4an, domekan, Algortako kaleetan barna. Azken urteotako moduan, aurten ere ehun dantzari inguruk parte hartu du kalejiran, Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, euren ekarpena egin guran. Segi ikurriña astintzen!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





‘La plenciana’

eskabetxeraren
etorkizuna, ezbaian

Asko aldatu da Plentziako bizimodua eta paisaia 1959. urtetik, alboko argazkia atera zutenetik, hain zuzen ere. Baina portuan badira oraindino zutunik darraiten eraikinak, adibidez: argazkiko ezker aldean agertzen den ‘La Plenciana’ eskabetxera. Baina agian ez luzerako. Izan ere, hainbat proiektu proposatu dute lurzoru horretarako: etxebizitzak, parkea etab. ‘La Plenciana’ XIX. mende amaieran eraiki zuen ‘Arruza y Cia’ enpresak. Hasiera batean, eraikinak arrantzaleen etxebizitzak hartuko zituen, baina, azkenean, erabilera aldatu eta eskebetxe eta kontserben fabrika bihurtu zen. Egun, besteak beste, arrantzaleek erabiltzen dute biltegi legez.

BITTOREN LARAU DOGOTIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Getxoko Jabekuntza Eskolaren ekimenez, hileko azken eguenetan (19:00-21:00; maiatza arte) andra taldea batzen da Emakumeak Kulturarteko Elkarrizketan parte hartzeko Villamonte kultur etxean. Ateak zabalik dituen ekimeneko dinamizatzailerik da Cony Carranza soziologoa (El Salvador, 1963). Abenduko hitzorduan kulturartekotasunaz, horren esanguraz eta erronkez hitz egingo dute, eta urtarrileko zitan munduko jolasak, horien bidez transmititzen diren mendekotasun baloreen eta abarren inguruan jardungo dute. Etorkinez, bertokotzeaz, emakumeez, ezberdintzen gaituzten kontuez eta batzen, hurbiltzen gaituzten gehiengoez, hango zein hemengo arazoez, inongoez, edonogoez eta danon egitekoez eta ardurez, antzekoez, ikaspenez, alkarri begiratzeaz, ezagutzeaz, ulertzeaz, sareez, zubiez eta abarrez egin dugu berba.

Cony Carranza

sare zabal-luzeak ehuntzen

Testua: **I. Sagaminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Soziologoa zara, genero arloan lan egin-dakoa; formakuntza feministatik.
—El Salvadorren, soziologia alorrean, hezkuntzan eta fasilizazioan jardun nuen oro har, genero prozesuetako sentsibilizazioan eta formakuntzan, bai emakumezko taldeak zein gizonezkoak ere. Orduko kontu interesgarrienetakoa da andrazko borrokalari ohiakaz lan egiteko aukera izan nuela. Gerra zibil luzea bizi izan zuen herritik nator, eta Bake Akordioak sinatu zirenean jende haregaz, emakume haiekaz behar egiteko aukera izan nuen. Nire bizitzako pribilegiarik handienetakoa izan da hori, gerrate luzeko emakumeen bizipenak jaso ahal izatea, sarriegi egiten da ezikusiarrena halakoen aurrean! Osteen, gai horretan (bakea, birgizarteratzea e.a.), hemen ere gero eta berba gehiago egiten denari buruz, hiriguneetan eta baserriguneetan lanketa ere egin nuen. Egia esan, genero ikuspegia banuen ere, uste dut formakuntza feminista gerora jaso dudala, bidaian zehar eta batez ere, Euskal Herrian.
—Zergatik, zelan heldu zinen hona? Zelakoa izan zen eta da euskal gizartearen harrrera? Zer sentipen daukazu akorduan?
—Kontu bitxia da: ez nentorren Euskal Herria, El Salvadorretik urten nintzen Ingala-

terrarantz, ingelesa ikasteko asmoz. Baina Bizitzaren gutizia-bira ikaragarri horietako batengatik Euskal Herrian lur hartu nuen, El Salvadorren ezagututako lagun baten birtartez. Hegazkin txartelerako aurrezteko asmoz apur baterako lotu nintzen, apur hori beste apur bati gehitu zitzaion, nire inguruan sarea josten joan nintzen edo ginen, eta apurka... gaur arte. Paperak bete behar izatearen, erroaldatzaren eta abarren tramitek eta esperientzia latza pasa nituen, asko legeztaintzaile lanetan ibili naiz, baina El Salvadorren jasotako formakuntza banenkarrenez beste esparru batzuk ere zabalduz

“Urrun daudenen falta uste duzu denboratxoa pasatakoan sendatzen dela, baina malkoei eutsi ezin diezunean...”

joan zaizkit, barbarako: Munduko Emakumeak-ekoakaz zelanbaiteko sarea, Hegoak-ekoakaz formakuntza-lantegiak eginez, Harresiak-en, Ignacio Ellacuria zentroan e.a. Neure egoera, bizipenak eta sentimenduak ulertzen lagundu didan sare zabalaz josi nuen urtetan; akorduan dut bertan lotzeko gogoa ia hasiera-hasieratik izan

nuela. Hori bai, ezin ahaztu urrun daudenen falta, familiarrena. Uste duzu horrelakoak denboratxoa pasatakoan sendatzen direla, baina, malkoei eutsi ezin diezunean kon-turatzaren zara, sentimenduak hor daudela, ez direla guztiz sendatu, inoiz ez. Nik neba, koinata eta iloba bi ditut hemen neure alboan, eta halere oso gogorra da. Jende asko oso hurbil sentitzen duzu, gure historia ulertzen duena, baina badira bestelakoak ere; nire ustez prozesu hauen gaineko ezjakintasunagatik edo. Momentu gogorrek pasatzen dituzu, soldata bidegabeak jaso, tratatu ez gizatiarra. Ez nuke pentsatu gura emakume

danek pasa behar dutenik halako egoeratik, edo gizon guztiek, baina bideordaina lakoa dela uste dut. Garrantzitsuena da jarrera edo posizionatze hori jorratzea. Lehenengo bizpahiru urteak horrela izaten dira. Baina nork esan diezazuke nor zaren ala ez? Erakutsi arte, konfiantza eskaintzen, zabal-tzen den arte?! Momentu gogorren ostean,



politena, nire ustez, sarea egitea da; nor zaren urteten hasten da, zeure lekua hartzen zoaz. Gizarteak, zauden lekuaen arabera, ulertzen du prozesu hori, bada jendea ulertzen duena. Eta ez dutenakaz, gu hemen egotearen arrazoia ulertzen ez dutenakaz bizitzen jakin behar dutenak ere badira. —“**Lana kentzera**” **zatoztela**, “**bertakotu gura ez**” **duzuela sinesten dutenei, familia, etxea, herria utzi behar izatea ulertu gura ez dutenei zelan azaldu?** Eta **integrazio politikak dauden moduan egonda.**

—Egia da. Halere, uste dut Euskal Herria honen danaren azterketa eta onarpen-prozesuan dagoela. Kulturartekotasunaren gaia mahai gainean jartzen duzunean, duen garrantziak konturatzen dira. Kulturartekotasuna lantzea benetan garrantzitsua da, benetan serio hartu beharreko egitekoa; lana, baliabideak eskainiz, denbora eta jendea bideratuz horretara e.a. Norantza bi dituen prozesua delako, esfortzu handiena gizarteak berak egin beharko lukeela uste dut, hemengoak, eta beste aldetik, geuk ere badugu zeregina. Baina estereotipo horrekaz danakaz amaitzea, apurtzea ez da erraza, lan asko eta handia eskatzen du, aktore askoren partaidetza behar duena, eta urte askoko prozesuak. Halere, nire kasuan, eta beste emakume askorenean ere, badakizue migratzen dugunok ez garela beti pobreenak, bada historian eta munduan zehar mugitzen den, bidaiatzen duen pertsona kopurua %3 gitxi gorabehera; horrez gain kontu ekonomikoengatik, genero indarkeriagatik e.a. mugitzen direnak ere. Nire kasuan ingelesa ikasteko eta 40 urte nituela mundua ezagutzeko bidaiatu nuen. Ez dugu beti esan behar “biktima” direla, garela, “koittaua”, “lan bila dator” e.a. Harago ikusi gura izan dugun emakumeak ere bagarelako, andrazkoak diot, jorratzen dudana generoa delako. Horietako askok zera pentsatu zuen: nazkatu naiz halako gizon-modugaz afera izateaz, amatasun itogarriaz nekatuta nengoen, ama izan nintzen 16 urtegaz e.a. Mundu, bide eta amets barriak bilatu gura izan dituzte. Halere, egia da, badira, asko, kontu ekonomikoengatik ere egin zutela. Nik neuk, beste

askok legez, ez dugu istorio hori; etorri gara eta uste dugu lekutu gaitezkeela, zer eskaini badugula gure ekarria badugulako, eta horretarako aukera izan behar dugula. Euskal Herriak eskaintzen dit... balio handiena duena niretzat eskaintzen didan segurtasuna da; herriak, El Salvadorrek, segurtasun eremuan historia oso gogorra dauka. Hemengo segurtasunak formakuntzarako aukera

“Momentu gogorren ostean, politena, nire ustez, sarea egitea da...”

zabaltzen dizu, aisialdiaz gozatzeko e.a. Hori nire historia da, lehen esan legez, jositako sare horrek, adinak eta ditudan baliabide intelektualek, aurrera egitea baimendu didate. Oztopo diren txartel, paper eta kontu horietaz gainera, noski. Baina heltzen dabiltzanak ere ezagutzen ditut, ziurrenik historia askoz latzagoa eta gogorragoa izan duten emakumezko asko aurkez diezazkizuet; krisia dela eta, euren adinagatik eta abarrengatik. —**Getxoko Jabekuntza Eskolako “Emakumeak Kulturarteko Elkarriketan” ekimenean zabilta. Zer problematika azaltzen dira?** —Dinamizaitzailea naiz. Aurrerapausoa egiten gabilta ekimen honegaz, kulturartekotasuna bakarrik jai-giroko, gastronomiaren inguruko topagunea izateaz gainera, horiek ederrak badira ere, kontua gehiago sakontzea dela uste dugu. Ekimenak gura duena da an-

“Kulturartekotasuna, bakarrik jai-giroko... topagunea izateaz gainera (...) kontua gehiago sakontzea da”

drazkoen, bai hango zein bertoko, intereseko diren gaien inguruan, hurbiltzen gaituzten eta ezberdintzen gaituzten kontuen gainean ere bai, alkarregaz berba egitea, eztabaidatzea; sarri ez gara danak kontu berberaren gainean pentsatzen ibili, baina adostasunak aurki genitzake ia beti; berbarako jabekuntza kontuetan, prozesuetan, amatasunean, etxeko

lanen ingurukoetan (zelan hobetu dituzte lan baldintzak bertoko andrekin horretan, eta zein egoera bizi duten lanbide horretan diharduten etorkinek e.a.), landu izan ditugun beste gaietan, adib.: feminismo europarra, latinoamerikarra, islamiarra e.a. Konturatzen gara geuk ere baditugula han prozesu interesgarriak. Iaz bortizkeriaz ere jardun genuen. Nik uste bertoko neskei esterotipoak botarazten

laguntzen diela, zelanbait esatearren alkar igurtzi, alkarri begiratu, alkar ikusi eta hurbiltzeko balio digula danori, eta azkenean kontu pilo batek lotzen gaituztela konturatzeke. Euskal kulturaren gaineko hitzaldi ederra ere egon da, balio izan digu ulertzeko zergatik egiten dituzuen zuek gauzak egiten dituzuen moduan, zergatik den zuen jarrera den modukoa... Niretzat oso interesgarria da hori dana, hori da kulturartekotasuna. Abenduaren 20ko topaketan genero ikuspegitik kulturartekotasunaren esangurez, egitekoz eta erronkez jardungo dugu. Kulturartekotasuna da, nire ustez, gai horietan danetan sakontzea, inork heltzen ez dien gai horiei heltzea; errazagoa ei delako esterotipoakaz bizitzea, esterotipoen erosotasunean jausi eta hori sinetsi; errazagoa delako hori, sinesmenak eta emondako esterotipoak de-

zabaltzen dizkizun etxe, gizarte horrekiko errespetua izatea ere bada ulertzea eta erantzutea; nor berean ixtea baino, nik deritzodan legez, kuturartekotasun mestizo horren zabaltasuna bizitzea.

—**Bertakotzeaz, integrazioaz jardun dugu lehenago. Ilobak D ereduan dabilta...**

—Orain, heldu ziren adinagatik edo, kosta egiten zaigu salvadortar historia ere badutela sentitzea! Irudi polita dute, baina sentitzen dut ez dutela salvadortar ere izateagatik harrotasunik! Apur bat gogorra egiten zait, beraien erreferente dan-danak bertokoak dira: Athletic-a, lagunak, musika, hizkuntza e.a. Uste dut ez dutela bere beste herria, haren historia e.a. galdu behar, irabazia delako eurentzat, hobaria... Solidarioagoak izatea gura dugu, laster bidaiatu ahal izatea, ikus dezaten asko sufritu duen herria bada ere, ekarpenak egin eta baduela zer irakatsi.

—**Zelan eraiki daitezke betiko bertokoen eta bertokotzen dabiltzan arteko zubiak?**

—Elkarriketan ekimeneko taldea nahiko egonkorra da, nahiko genuke neskato gehiago hurbiltzea, baina! Haiek badakite non alkar topatu! Alkarri entzuten ahalegintzen gara, badakite ez dugula gura eta ez dugula biktima posiziorik hartu behar, aitortzea gaitza izan dela bai, baina aurrera egin dugula ere onartu ere egin behar dugu. Apurka aurrez aurre alkarri begira diezaiokegula konturatzen direla uste dut; posizio asistentzialistatik ere ez dugu gura, danek egiten dugu berba, euren eskuzabaltasunari eta ulertzeko enpatiarik esker.

—Egia ez dela askotan esanarren, euskal matriarkatuaren zantzurik antzeman duzu?

—Hedatuta dagoen ideia da hori. Heldu eta gitxira bisitatu nituen leku batzuetan arreta emon zidan, itxura batean, emakumeen etxe barruko botereak; berba egiteko, ahotsa goratzeko, eskatzeko, zer gura duen argi azaltzeko moduak ere bai... Konturatu naiz batzuetan gizonezkoek laguntzen dutela beharretan. Halakoetatik orokortasunak aterako bagenitu esan liteke baietz badela, esan litekeela berton andrazkoak “agintzaileak” zartela, baina... Barrurako boterea da hori,



aztertu beharko litzateke bestelako erabakietan zer gertatzen den, Nire esperientzia hiri-guneetakoa da, bestelakoetan hala da? Ona da duzuen indar hori, mugak jartzen jakitea, baina hortik aurrera egiteko!

—**Urrunetik zelan ikusten duzu emakumezko salvadortarren egoera? Gerrilariakaz lan egin duzu, emakume ausartak izan ere!** —Emakume hain ausartak izan ziren! Tamalez, gerrillako kasuan, prozesuan ez zen horren aitortzarik egin! Gogorrena hori izan zen, herri-hezitzaile izan zirelako, elikagaiak banatzen ibili zirelako, seme-alaben inguruan erabaki gogorrak hartu zituztelako... Zoritxarrez, amaitzean, asko errol tradizioaletara itzuli zen; benetan etsigarria... Ez dakit zelan dauden kontuak orain, baina

“Ulertu beharko genuke... ez dagoela emakumerik bere eremu guztietan jabeturik dagoenik!”

haiekiko zorra dugu! Aitortzaren aldetik eta beste kontu batzuetan ere bai. Halere, eremu batzuetan lortu zen, kontzientzia hartu zuten askok, gidaritza ere, berretsi euren balioa... Tamalez, gizarteak ez zituen bere egin kontu horiek. Badira euren indarraz jabetu diren emakume kementsuak han, badira andrazko kementsuak eta indar-jabe-

tuak berton; baina, batzuk etxean baino ez dira hala, beste batzuk lanean baino ez, edo ere bai... Ulertu beharko genukeena da dan-danek, bizi izan ditugula jabekuntza prozesuak, eta ez dagoela emakumerik bere eremu guztietan jabeturik dagoenik! Topagune batean landu genuen gaia, bertokoak ere konturatu ziren horretaz; eta etorritakoen-tzat ere balio izan zuen, askok uste dutelako “Ene! Andra europarrak zein jabeturik dauden!”, ostera ez duela horrela izan beharrik. Kontu batzuk konpontzea eta aurrera egitea lortu duzue, baina badira beste batzuk oraindik gainean daroazuenak, badugu lana! Hobe litzateke pentsatzea danak direla prozesu errespetagarriak, eta danon artean alkarregaz aurrera egin dezakegula. Feminista




Afrikaraino

Etkez etxe ibiliko da Olentzero abenduaren 24ko gauean, baina, Euskal Herrira heldu orduko, hara eta hona ibili da bere laguntzailea: Afrikara eroan ditu opariak Olentzeroren lobak. Iñigo Iraultza Garciak, *Iru-k*, hemen bizi diren hainbat lagunen opariak eroan dizkie euren senideei, Afrikako leku galduetara. Bidaia emozionala ere izan ei da, baina irudi sorta ederra utzi digute protagonistek. Egunotan Leioako Bulebarrean ikus ditzakezu horrelako gehiago, argazkiak zein bideoak. Hauxe da Uribe Kostako *Olentzero munduan*.

Argazkiak: **Markel Redondo**







Binilotik sarera > berbaldia eta zuzeneko emanaldia

Azken 40 urteotako euskal-musika getxoztarra, lau akordetan

Getxoko Euskal Kulturaren Jardunaldien barruan, UK aldizkariak ‘Binilotik sarera, lau akorde’ ekitaldia antolatu zuen azaroaren 24an. Bittor Egurrola, Kepa Petralanda (Alproja), Mikel ‘Piña’ (Ukabilkada) eta Mobydick-ek parte hartu zuten Eztabaida Gunean antolatutako berbaldian.

Rock-a, punk-a, oi!, kantautoreak, euskal musika tradizionala e.a. Bakarlariak zein taldeak. Biniloaren sasoikoak batzuk, garai digitalekoak besteak. Asko dira lagunarteko giroan musika taldea sortu eta euren ibilbidea egin duten getxoztarrak. Azken 40 urteotako euskal musika getxoztarraren errepasoa egiteko asmoz, ‘Binilotik sarera, lau akorde’ ekitaldia antolatu zuen UK aldizkariak azaroaren 24an, Eztabaida Gune Antiautoritarioan. Ekitaldia Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatzen dituen Euskal Kulturaren XIII. Jardunaldien barruan antolatu zen, eta zati bi izan zituen: berbaldia alde batetik eta musika-emanaldia bestetik.

Mahainguruan parte hartzeko, gutxi gora-behera hamarkada bakoitzari euren akordeak eskaini dizkieten lau musikari gonbidatu zituen UK aldizkariak: Bittor Egurrola (bakarlaria), Kepa Petralanda (Alproja), Mikel ‘Piña’ (Ukabilkada) eta Eneko Burzako (Nun eta Mobydick). Azken honek bideo bidez parte hartu zuen Madriletik. Errepasoa kronologiko ki egin zenez, Bittor Egurrola izan zen berbetan hasi zen aurrenekoa. Ia-ia aurkezpenik behar ez duen getxoztartutako gernikarra, 1968tik 1970era bitartean ibili zen kantari. Egurrolak gogoratzen



Bittor Egurrolaren hiru abesti entzuteko aukera izan zuten bertaratutakoek

duenez, hamarkada “zoragarria” izan zen: *“Loraldia eman zen alderdi guztietan: maila politikoan, kulturean, ikastolen sorrera, euskal kanta barriak e.a. Hamarkada interesgarria benetan”*. Mixel Labegerie ‘euskal kantagintza barriaren

“Gure helburua euskaraz kantatzea zen, eta horren bidez protesta egitea”

aita’ eta Raimon kataluniarraren kantak entzuteak bultzatu zuen kantatzera.

1969. urtean grabatu zituen disko biak, Cinsa diskoetxe txikiagaz. Musikaren munduan barneratuta, Egurrolak euskara eta euskal kulturagaz konprometitutako lagunak ezagutu zituen. *“Oso politak izan ziren urte horiek. Gure helburua euskaraz kantatzea zen eta horren*

bidez zerbait esatea, protesta egitea”. Hainbat kontzertu eskaini zituen, baina bi nabarmentzen ditu: Pariseko Euskal Etxean eskainitakoa eta Francesc Pi de la Serragaz eskainitakoa. Beste kontzertu batean, haatik, bere kanta baten letra ahaztu zitzaion Egurrolari: *“Barriro kantatzen hasi nintzen, jendea barrezka eta txaloka ari zen bitartean”*. Baina soldaduska egin ostean, 1970. urte amaieran, kantagintza uztea erabaki zuen: *“Asko hobetu behar nuen bete-betean kantagintzara dedikatzeko, eta ez nuen argi ikusten...”*.

80. hamarkada Getxon

Kepa Petralanda algortarra izan zen berbetan bigarrena. Alproja taldea 1985. urtetik 1992. urtera arte ibili zen bazterrak astintzen, eta maketa bi eta lau kantatzen osatutako biniloa grabatu zuten,



Gazte zein heldu hurreratu ziren mahaingurura

1989. urtean. Petralandaren arabera, 80. hamarkada oso bizia izan zen musika aldetik Getxon: *“Getxoztarrek batik bat bultzatutako Muskaria aldizkaria sortu zen, 82an Galean Lemoizko zentral nuklearraren aurkako kontzertuak antolatu ziren e.a.”*. Irrati libre eta fanzineakaz batera punk musika heldu eta 83an euskal rock erradikalaren kontzeptua hedatzen joan zen.

Testuinguru horretan sortu zen 85ean Alproja taldea. Getxon, apurka, rock eta punk kontzertuak antolatzen

hasi ziren: *“Gogoratzen dut Neguri Langileko jaietan Kortatugaz jo gendula, eta Txiki Otaegi plazan RIP, MCD eta Delirium Tremens-egaz”*. Zalantza barik, droga izan zen hamarkada honen ezau-garrietako bat. *“Gure kasuan, entsegu bakoitzean garagardo kutxa bat, eta ez botila, jausten zan”*.

Petralandaren lekukoa Mikel ‘Piña’ Ukabilkadako kideak hartu zuen. 2003. urtean sortu zen taldea, eta eskualdean jarraitzaile ugari izan dituen ‘oi! musika’-ren erreferente izan dira. 2006. urtean



Gibelurdiñek taldeak kontzertua eskaini zuen mahainguruaren ostean

‘Gu gara mendekua’ diskoa grabatu eta 2010. urteko Algortako saninazio jaietan eman zuten azkenengo kontzertua. ‘Piña’-k gogoratzen duenez, hasieran euskaraz eta gazteleraz kantatzen zuten: *“Baina horretan inkoherentzia handia ikusten genuenez, euskaraz bakarrik abesten hasi ginen”*. Instituzioetatik aldendu-

“Gogoratzen dut Neguri Langileko jaietan Kortatugaz jo gendula”

ta mantendu direnez, kontzertu gehienak jai, gaztetxe edo tabernetan egin dituzte: *“Antzokiaren agurran izan ezik, San Nikolas-en ibiltzen ginelako...”*.

Azkenik, bideo bidez bada ere, Eneko Burzakov ere parte hartu zuen berbaldian. Nun taldeagaz ibili ostean, bakarlari ibili da azken urteetan ‘Mobydick’ ezizenagaz. Bere arabera, *“gaur egun badago ipar amerikako rock ortodoxoaren berragerpen bat”*. Aurtengo udan, (covers) izeneko EPa kaleratu du. Ekoizpenean autogestioa izan du beti aldarri, eta banaketan, barriz, ‘creative commons’ lizentzia: *“Internetaren aurka joan beharrean, interesgarriagoa da moldatzea, eta musika inolako oztopo barik zabaltzea”*. Diska salmentak berpizteko, soinu kalitate ona duten diskoei balioa ematea proposatzen du. ○



Mobydick-ek bideo bidez parte hartu zuen



BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartaren Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GARKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Txapelduna Getxokoa

Bimotion taldeak **Zinebi Express film labur azkarren txapelketa** irabazi du



Mikel Abasolo algortarra

Laburra, baina bizi-bizia. Horrelakoa da 'A hard night's day' film laburra, aurtengo Zinebi Express film labur lehiaketaren irabazlea. Egilea Bimotion taldea da, eta euren lanak hiru minutuko iraupena baino ez du. Hala ere, ikuslearen arreta hasiera-hasieratik piztu eta hiru minutu horietan ikuslea pantailara lotuta mantentzen du.

Sei lagunek osatzen dute Bimotion taldea, eta horietatik hiru getxoztarrak dira: Mikel Abasolo (Algorta), Dani Pellow (Areeta), Cristina Llopis (Areeta), Ainhoa Marcide, Irati Agirre eta Henry Lopez. Abasoloren arabera, ezustekoa hartu dute txapeldunak direla

jakin dutenean: *"Lankideei filma erakutsi genien, eta aukerak bagenituela esan ziguten, baina lehenengo postua ez genuen espero"*. Erandioko Tartanga Institutuan sortu zuten Bimotion, bertan ikus-entzunezko ikasketak alkarre-

"Ez dago zuzendari edo aktore finkorik, denon artean egiten dugu dena"

gaz egin zituztelako. Daborduko hiru film labur egin dituzte, eta ondo konpontzen dira taldean: *"Ez dago eginkizun finkorik bakoitzarentzat, ez dago zuzendaririk, aktore finkorik... Denon artean egiten dugu dena"*. Azken film labur honetan, adibidez, algortarrak egin du aktore protagonistaren papera. Baina Abasolo ez da film honetan agertzen den algortar bakarra: *"Aktore profesionalakaz harremanik ez dugunez, inguruko jendea erabiltzen dugu aktore lanak egiteko, eta koadrila beti prest egoten da horretarako"*.

Momentuz zinema zaletasun bezala hartzen badute ere, lehiaketa gehiagotan parte-hartzeko asmoa dute Bimotion-eko lagunek. *"Gure ametsa film luze bat egitea da"*. Abasolok, gainera, beste txapelketa batzuetan parte hartu du bakarka, Donostiako Amstel Surf Film Jaialdian, kasu. Zorte on! ○

Atzera kontua hasi da

Rock&roll doinuuz betetako diskoa plazaratu barri du Kuenta Atras talde algortarrak



Karras (baxua), Mentxi (ahotsa eta gitarra) eta Ander (bateria) dira taldekideak

3, 2, 1... eta badator Kuenta Atras rock&roll taldearen lehen diskoa! Algortarrek 2004. urtean hartu zuten gitarra, baxua eta baketak eskuan, eta inguruko gaztetxe eta jai ugaritan kontzertuak eskaini ostean, euren lehen diskoa grabatzera animatu dira. 'Grabaciones rotas' Basauriko Txarraska gaztetxeko estudioetan grabatu dute, Jorge Perales soinu-teknikari algortarraren eskutik.

Zortzi abestik osatzen du Kuenta Atras-en lehen lan hau; zazpi gaztelaraz eta beste bat ingelesez. Diskoak hiru euro balio du eta momentuz hiru salmenta

gune zehaztu dituzte: Eztabaida Gunea (Villamonte A-4, Algorta), Gatazka Gunea (Ronda 12, Bilbo) eta Power Records (Villarias 5, Bilbo). Taldearen e-postara idatziz gero ere eskura daiteke: kuentaatras@gmail.com. Euren webgunean, barriz, kanta batzuk entzun daitezke.

Baina diskoan entzun beharrean, zuzenekoaz gozatu gura baduzu, Karras, Mentxi eta Anderrek hainbat kontzertu eskainiko dituzte. Hurrengo, barbarako, urtarrilaren 10ean izango da, Algortako Satistegi tabernan. ○

Info+: www.myspace.com/kuentaatras

diskoak

Gorantz Erri
Antton
Baga-biga



Elorriotik dator Antton taldea. Kantariaren izena hartu badute ere, Lor taldeko errautsetatik jaiotako talde-proiektua da. Antton (abeslaria), Lor taldeko Lander (gitarra, ahotsa) eta Rami (bateria), Mikel (teklatuak) eta Txaber (baxua). Doinu intimoak lantzen ditu Anttonek, eta ahots sakona eta ederra da bere ezaugarri nagusia.

Haria
Berri Txarrak
Kaiowas Records



BTX hirukotearen zazpigarren diskoa da 'Harian'. Ross Robinson ezagunak (Slipknot, The Cure) ekoitzi du, eta 12 kanta barri sortu dituzte. BTX-en disko batean espero zenituzkeen (ala ez) ezaugarri guztiak batu dituzte: rocka eta punka, pasioa eta amorrua, popa eta hardcorea, poesia eta ezinegona, arriskua e.a.

X
Kaotiko
Baga-biga



Kaotiko taldeak hamargarren urteurrena beteko du aurtan. Euren zazpigarren disko hau zuzenean grabatu zuten Bilboko Aste Nagusian, eta 'X' da bere izenburua. Hainbat gonbidatu izan dituzte: Alex Gatibu, Aitor Lendakaris Muertos, JuanKar Boikot, Xabier Silveira eta Fernando Reincidentes. Diskoak 28 kanta ditu, eta DVDa ere badakur.

hatortxu rock > egun bitan barriro

Urtarrilaren 6 eta 7an ospatuko da 2012. urteko Hatortxu Rock elkartasun jaialdia. Zizur Nagusia utzi eta Atarrabiara bueltatuko da, eta urtero legez, punta-puntako musika taldeek parte hartuko dute. Barikuan giro lasaia izango da jaialdian: Kerobiak eta Bide Ertzeanek formatu akustikoko emanaldia eskainiko dute, 21:30etik aurrera. Hainbat gonbidatu izango dituzte, besteak beste, Gorka Urbizu eta Amaiur taldeko Naroa Gainza. Zapatuan makro-kontzertuen txanda helduko da: Soziedad Alkoholika, Narco, Reincidentes, Leihotikan, Ken Zazpi, Betagarri, Ze esatek! eta Bad Sound System. Sarrerak internet bidez eros daitezke.

Info+: www.hatortxurock.org

euskal rock-a > liburua kalean

Euskal Herriko rock-aren historiari buruzko liburua idatzi barri du Elena Lopez Aguirre kazetari eta musika-adituak. 'Historia del Rock Vasco' liburuan datu ugari batu ditu Lopezek, lan entziklopedikoa osatzearaino. Hain zuzen, liburua ez da gau bakar batean irakurtzekoa, 650 orri baititu. Datuak ez ezik, hausnarketa ere landu du Lopezek. Hau da, rock talde eta mugimendua aipatzeaz gain, garai bakoitzaren testuingurua ere lantzen du: kultura, jendartea, politika, kirola, ekonomia e.a. Dena den, Lopezek beste lan batzuk ere idatzi ditu euskal rockari buruz: *Del txistu a la telecaster. Historia del rock vasco* eta *Potato Reggae Banda. La utopia de una Euskadi tropical*.

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kaleko 8. bu) /
Tf. 94 491 68 05
Algorta

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkeztzen baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bítxitegia**

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta


[literatura]

Lora-hautsa heda dadin Erlearen bosgarren ziztadak autoetatik eta komikitik hartu du bazka

Euskaltzaindiak argitaratzen duen Erlea literatura aldizkariaren bosgarren zenbakia kalean da dagoeneko. Pamiela argitaletxeak editatzen eta diseinatzen duen aldizkariaren zuzendari Jose Irazu “Bernardo Atxaga” idazleak eta euskaltzainak aurkezpenean adierazi zuenez, “Erlea-ren ikurra aurkitu dugu eta erabiliko dugu”; izan ere, zenbaki honetan Jon Zabaletak marraztutako erlea orrialdeetan zehar letra artean dantzatzeko antzeman daiteke. Bosgarren honek ere ohiko hiru ardatzei eusten die: *“batetik, idazle ezagunen lanak argitaratzea; bestetik, hain ezagunak ez diren, edo ia anonimatuan diren sortzaileenak ezagutaraztea; eta hirugarrenik, alde grafikoa, hots, artistak eta pintoreak aldarrikatzea, alegia”*.

“Euskaltzaindiak argitaratzen duen literatur aldizkariaren 5.a kalean”

Halaber, betiko atalez gainera, ohi legez, gai nagusi edo “atmosfera” jakina izaten du Erlearen zenbaki bakoitzak; halere, oraingoan eduki biren inguruan dihardu, batetik, Euskal Herria eta komikiak, eta bestetik, autoak. Horietaz jarduteko, bakoitzak berean, Erlea 5era gonbidatuak hurrengoak izan dira: Piarres



Erlea 5 aldizkariaren azala

Aintziart, Iñaki Aldekoa, Jon Alonso, Kepa Altonaga, Kike Amonarriz, Uxue Apaolaza, Iñigo Aranbarri, Marisol Bastida, Iñaki Berazategi, Miel A. Elustondo, Estibalitz Ezkerra, Jose Fernandez de la Sota, Aritz Galarraga, Juan Gorostidi, Felix Ibargutxi, Juan Kruz Igerabide, Jacinto Iturbe, Joxemari Iturralde, Koldo Izagirre, Manu Lopez, Joseba Luzuriaga, Xabier Mendiguren, Lourdes Otaegi, Iñaki Mendizabal, Lorenzo Rojo, Joxean Sagastizabal eta Iban Zaldua. Irudigileak, oster, Ernesto Valverde, Jon Zabaleta eta Marta Cardenas. ○


Info+: www.euskaltzaindia.net

liburuak



Kukutza gaztetxea...
Gaztetxekideak+Lutxo Egia
Txalaparta

Kukutzako kideek eta Lutxo Egia alkarlanean idatzi dute Txalapartak argitaratu duen Kukutza Gaztetxea. Ellos por dinero nosotras por placer lana. Jaio zenetik 15 urte joan eta hutsarazi eta eratsi zutenetik hil bi joan direnean, ehundaka bizipen eta gogoeta batzen ditu liburuak.



Errauts
Eneko Aizpurua
Erein

Labankadaz hil dute margibet bat Lazkaon. Hilketak argitzeko Mikel Egileor kazetariari dei egin diote... Egitekoek ekinez, ezkutuko interes zikinak, negozio ilunak eta abar azaleratuko dira. Hildakoaren errautsek ustelkeriaren kiratsa bazter guztietara zabalduko dute...

[kirola]

Gogoko tokian aldatsik ez!

2012. urteko urteerak prestatu ditu Getxoko Itxas-Argia Mendi Taldeak; **emon izena!**



Mendi-urteeretan 25 bat lagun batzen dira normalean

Urte akabu eta hasieran ohitura da gurean Gorbeia bezalako mendietara txangoak egitea, urteari agurra edo ondo etorria egiteko. Baina badira urtean zehar hilero-hilero huts egin barik mendira joateko ohitura dutenak. Getxoko Itxas-Argia Mendi Taldeko lagunak, barbarako, hamaika txango egiten dituzte urtean (hilero, abuztuan izan ezik).

Talde 50. hamarkadan sortu zen, eta hainbat gorabehera izan ostean, azken urteetan barriro gorakada nabarmena izan du. Mikel Sopuerta taldeko presidentek argitu duenez, 2008. urtean taldea bul-tzatzeko konpromisoa hartu zuten, eta horretan dabilta geroztik: *“Hogeit bat izate-tetik, 2011. urtean 145 federatu izatera igaro gara”*.

Hurrengo urteko urteerak zehaztu dituzte dagoeneko: urtarilean Ungino eta Eskutxira doaz, otsailan Arantzazu mendira, martxoan Beasain mendira, apirilean Leoneko Brañacaballo eta Faro mendile-rruetara, ekainean Picos de Europara, uztailan Luzaidera, irailean Pirinioetara,

urrian Arrarrats mendira, azaroan Udalatxera eta abenduan Uribe Kostan lotuko dira, Ermua eta Urizarmendi mendietan hain zuzen. Urteera gehienak ‘errazak’ diren arren, badira ahalegin handi-agoa eskatzen dutenak. *“Sufritzeaz gain, ondo pasatzen dugu. Taldean joaten gara eta giro oso ona dugu”*. Gero eta gehiago

“Gazteak animatu gura ditugu mendi taldean parte hartzera”

diren arren, mendigoizaleen batez besteko adina 40 urtekoa dela nabarmendu du Sopuertak: *“Gazteak animatu gura ditugu mendi taldean parte hartzera”*.

Urteeretan parte hartu gura duenak orain du aukera lizentzia ateratzeko eta mendi taldeko bazkide izateko, (bazkide-tza 15 euroren truke). Martitzen eta egue-netan Getxoko Iturribide kaleko 24. zen-bakiko lokalean eman daiteke izena, arrastiko 19:30etik 21:30 arte. ○

Info+: itxasargiamenditaldea.wordpress.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kirol moda**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Iñigo Iraultza Garcia Iru > *Arraun the world* egitasmoa

“Begirada, kontaktu eta keinuen bitartez askoz hobeto ulertzen genuen alkar”

Olentzero munduan egitasmoak oihartzuna lortu du azkenaldian. Iñigo Iraultza Garciak Afrikara bidaiatu du Euskal Herrian bizi diren hainbat lagunen opariak eroateko senideei, Olentzeroren loba gisa jantzita. Bi lagunek lagundu diote eta munduan barrena opariak banatzen jarraitzeko asmoa dauka.

—Afrikaraino joan zara opariak eroate-ra, zelan esperientzia?
—Ikaragarria. Bidaia polita, ez bakarrik bisitatu ditudan parajeengatik; bidaia emozionala izan da. Opariak eroan ditut, baina asko jaso dut, hasieratik. Aktore naizenez, Olentzerorena egin nuen Bilboko auzo batean. Ume batek gutuna eman zidan; Senegalgo bere senideentza-ko eskatu zituen opariak. Hortik abiatuta, ipuina idatzi eta bidaia egiteko aukera hausnartzen hasi nintzen. Olentzero bezala joatea ardura handia zenez, bere loba gisa joan nintzen, bitartekari gisa; Bilboko aterpe batean batu nituen gutunak, bideoak eta opariak. Mutil batek surf ohola eman zidan: bera baltsan joan zen Tangerretik Tarifara, eta ohol hari esker biziraun zuen. Nik omenaldia egin nion: baltsa bat egin eta itsasartea arrau-nean zeharkatzen saiatu nintzen, nahiz eta azkenean txalupa batek ere lagundu; ondoren, oholean iritsi nintzela irudika-tu nuen. Ez da bidaia tentel hutsa izan: jendea hil egiten da. Mugak zer esan gura duen aztertu gura nuen; azken batean, 14 kilometro besterik ez ziren. Egoera ikusita, agian, laster aurkakoa gertatuko da eta Europatik hara joan beharko dugu bizimodua ateratzera.
—Eta senideek zelan hartu zaituzte?



info+: arrauntheworld.com

—Ez nuen inor ezagutzen. Atea zabaldu eta harritzen ziren, nor ote nintzen. Herriak lekutan daude, eta hara iristean, berehala hurbiltzen ziren denak; bilatzen nuen pertsonaren argazkia erakutsi eta beregana eroaten ninduten. Senideak hasieran harritu, baina, argazkia edo gutuna erakustean, bat-batean sortzen

“Aktore lanean pertsonaiak egiten ditut, eta horiek bizitzara eroatea gustuko dut: antzerkia kalera, eta kaletik bizitzara”

zen laguntasuna. Izugarria zen euren erantzuna senideen bideoa erakustean: pantaila hazkatzen zuten. Hizkuntzaren bitartez ia ezin genuen komunikatu, baina begirada, kontaktu eta keinuen bitartez askoz hobeto ulertzen genuen alkar. Benetako harremana sortzen zen, oso sakona. Bihotza eta burua irekitzen

genuen. Batzuetan isilik egoten ginen, baina azkenean, familiakoak legez senti-tzen genituen. Eurek ere eman zizkigu-ten hemengo senideentzako opariak eta gutunak, eta bideoak grabatu genituen. Egindako bideo eta argazkiak erakutsiko ditugu Leioako Bulebarrean, kalean, abenduaren 26tik urtarrilaren 8ra.

—Eta proiektuagaz jarraituko ei duzu.
—Bai, ea datorren urtean egin dezake-dan beste bidaia bat, Hego Ameriketara; Olentzeroren loba beharrean, agian lehengusina edo auzokidea izango da. Aktore lanean pertsonaiak egiten ditut, eta horiek bizitzara eroatea gustuko dut: antzerkia kalera, eta kaletik bizitzara. ○

Fredi Paia

Galeako luki

Bada lurmustur beteri uzena emo-ten dotsen gure eskualdeko ingeru bet. Herri-lurre ixen zan sasoi beten, orduko las-torridunek markes beteri emon eutseen arten. Horrez ganera, Kantauri itsesbazte-rren posizino berezi deko, aurki. Gure eskualdeko arrantzalek gure herriteti Galizierentza bizi direzeneri behetarrak esa-ten dotsee eta gureti Bordalerantza bizi direzenei goitarrak deretxe. Eta Galean bertan, geologok falla esaten dotseen sako-nune handi bet ei dao. Areatati urten eta Iruñeraino ei do hori sakonune eta Galean horren zeti bet da.

Gure eurrekok upin eta eskunekaz parajeko baztar espezial betzuren barri emon ixen doskue. Horrek lekuk, gerora geobiologon beharrak argitu ixen daun lez, lur barruko ur emoi, falla uzeneko sako-nune eta sugarrikez lotute dao. Edo beste modu beten esateko, horretarango gorabe-herak apareziduten direz arteragokok bere-zitzet koxiteko barrutiten. Horrek zeharru-netan kontuz ibil ber dala argitzeko sortu eudezan lehengok, betzun eretxin, upinok.

Gauze jakine da Galea heriotzaz lotute egon ixen dala beti. Jente bertara joten ixen da bere buru botaten. Botateko intentzinoz jon eta bota ez ziren lagun pare bat alka-rrizketatu ahal ixen dodaz. Eta bien esanen, horrek troka baztarrak geitu iten ei dotse personari. Inderran batek anima iten dau biziteko ganoso ez daune bertatik behera salto iten. Anega ta erdi lagun galdu direz horreetara.

Iper baltzak dino, urte betzuten, atsalde-ro ikus eikeela Galeako lurbaztarrerera lorak eroten joten zan enbratxu bet. Baltzik jant-zite ibiltan ei zan beti. Urlik Berendiri argi-tu ei otsen seme-alaban bat tragau dakola Galeako labar madariketut hatan. Maitemindute egon ei zan enbratxun seine, baie buztarkiderako gure iaun hak ez ei otsen korrespondidu. Barku beten martxa in



“Gauze jakine da Galea heriotzaz lotute egon izen dala beti”

ei iaun, eta ez zan osta bere han entzuterik ixen. Getxoztar gazte, seguru bere, Galeara jotan ei zan ilundero, oletun gorazkaldi eta ereti bitartan maite iaun ha ekarko iaun

«Han ingerun bizi de, barrin loradun enbrarik agertu ez deiten. Galeako luki, biziteko ganarik ez daukenen lur baztarran jabole»

bapora asmako ete zan. Ez ei zan holangorik igero baie. Ilunde beten itsosora salto egin eta betiko galdu zan loradun andran seine.

Orduti, ilundero apareziduten zan enbratxue, lorak besarten hartunde, isil-isi-lik. Galea musturrera jon eta bertan itxiten iautzen lora garratzok.

Ilunde beten iper baltza harritu in zan. Egunen-egunen etorten zan enbratxu ez zalakon inondi bere ageri. Han lekun luki nabar bat ebilen Galeako parkinen eurreko bedarlekun, beteti bestera, artaga antzen.

Orduti, inor Galeati saltatan jotan bada, luki apareziduten ei dako. Trokara parajetuten direzaneri urten eta susto itzela emoten dotsee. Atzera inarazo eta etxerako biden iminten deituz atzera, famelikon poztasunerako.

Edozein ilundetan Galeara parajetuten bazaree, itxi eizuez ogi papurren betzuk, nahi okela zetiran bat aparkalekun eurreko bedartzan ganen. Itxedoizue apur beten, eta arin asmako dozue Galeako lukin begin ilunpeko gorritesune. Han ingerun bizi de, barrin loradun enbrarik agertu ze deiten. Galeako luki, biziteko ganarik ez daukene-en lur baztarran jabole. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozatzen has zaitezzen.



portu zaharra bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLATXE

Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia

Sanriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolatxe.com

La Triangu.

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07

berezi

Hanburgesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

BODEGUILLA BUTRON

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com

txakoli mota gane Tx.
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanta Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com

UNAI TABERNA
JATETXEA

C/ Alangobarren 3 C.P. 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61

CAFETERIA COSMOPOLITA

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80

JAN-TOKI ORMAIZTEAL

Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Asador Cervecera BERANGO

Oilasko erreak, indabak, truletsoia, arraina txingarretan
Menu bereziak enkarnez - Gabonetako Menu bereziak
Pello asado, truletsoia, alabias, pescados a la brasa. Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad
EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxo**tan**]

Mexikotik, adeitasunez

Jalapeñoa barruan duen oilasko-takoa



Oilaskoa erabiltzeaz gain, barazki edo okelagaz ere egin daiteke

Ohiko pintxo tradizionalak ez ezik, kanpotik ekarritako mokadutxoek ere arrakasta izaten dute gurean. Pikantea gustuko dutenek, barbarako, Mexikoko jakiak izaten dituzte gustuko. Portu Zaharra tabernan edo 'akerian', takoek beti izaten dute euren lekua barran. Mota askotako takoak egin daitezke: oilaskoagaz, barazkiakaz, okelagaz... Ale honetan oilasko-takoaren errezeta azalduko dugu, baina beste osagaien bat gura izanez gero, buruari eragin eta aldatzea baino ez duzu! Hasteko, gari-torta bat hartu beharko dugu (egindak eros daitezke supermerkatuan). Barruan hainbat oilasko-tira sartuko ditugu. Aurretik, noski, tiratan banatu (apur bat zabalak izan daitezela) eta frijitu beharko ditugu. Oilaskoaren gainean

tipula potxatua jarri (su geldoan egon eta gero, gatz apur bat bota), eta horren ostean, 'havarti' motako gazta-tira jarriko dugu. Ondoren, pikillo piperraren txanda helduko da (beste tiratxo bat egingo dugu) eta amaitzeko, jalapeñoa (Mexikoko pipermina) sartuko dugu. Tortagaz inguratu, zotz pare bategaz osagaiak zulatu euren lekuan mantentzeko, eta olio berotan frijituko dugu. Olio nahikotxo botako dugu, takoa ondo egin dadin. Eta listo, pintxo mexikarra prest izango dugu! Baina kontuz pikanteagaz, rantxerak abesten amaitu gura ez baduzu! o

Osagaiak: gari-torta, oilaskoa, tipula, havarti-gazta, pikillo piperra, jalapeñoa, olio eta gatz.

LAIKAK
Taberna

BASARTENA
URDULIZ
Teléfono: 946 761 128

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • TF. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Aituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z.g. • Tf.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Maria Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxareriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Zure publikizitatea hemen
Zure publikizitatea hemen
Zure publikizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

 URA (Abenduak 21 urtarrilak 19) Zorionak eta urte barri on! Eta zorionak! Kandela nahikorik ez dago tartan ipintzeko, hainbeste dira... Alkoholik bako garagardoa hartuko duzu behintzat, ezta?	 OTSOA (Urtarrilak 20 otsailak 18) Uda aspaldi joan zen eta negua iritsi da, baina zuri bost! Hotzik ez baduzu nabaritzen ere, ez al duzu uste praka luzeak janzteko garaia duzula? Negua heldu da-eta...	 ADARRA (Otsailak 19 martxoak 20) Zein ondo pasa zenuen santotomasetan, sekula baino hobeto! Ligatu ere, ligatu egin zenuen! Gainera, zorte berberagaz hasiko duzu urte barria; beraz, zorionak!
 AITZURRA (Martxoak 21 apirilak 19) Neskatoa? Igarleek ez zuten asmatu; beraz, horoskopoko honegaz bakarrik fida zaitezke: arren, ez ipini izen gazbakorik, sorgin honek nahikoa politak proposatu dizkizu-eta.	 HOSTOA (Apirilak 20 maiatzak 19) Oporraldia eta zu hain lanpetuta. Horrelakoa da ikasle bizitza: denak ospakizunetan eta zu lanez gainezka. Karrera amaitzean etorriko ei da saria. Ordura arte...	 EGUZKIA (Maiatzak 20 ekainak 18) Kontuak bere bidea jarraitzen ei du, badiudi gauzak ondo egin dituzula. Orain azken xehetasuna besterik ez duzu falta: ganorazko izena eman, damutuko zaizu bestela!
 GARIA (Ekainak 19 uztailak 18) Oso ondo igaroko dituzu Gabonak. Opari asko jasoko duzu, baina a zer astelehena urte barrian. Hor konpon! Oporretan zaude, gozatu, ondo pasa, eta gero, geroakoak!	 LASTOA (Uztailak 19 abuztuak 17) Aurten ere ez duzu saririk lortu Gabonetako loterian, hau pena! Hobe duzu urtarrileko zozketarako txartelen bat erostea, bestela sekula ez zaizu tokatuko!	 IRATZEA (Abuztuak 18 irailak 16) Zer eskatu diozu Olentzerori? Horrenbeste gauza? Asko da ba! Beno, horrela, asmatuko du. Baina kontuz zer eskatzen duzun, galtzerdiak eta liburuak ohiko opariak dira-eta!
 META (Irailak 17 urriak 16) Azkenean hartu dituzu merezitako oporrak, zein ondo! Orain denbora izango duzu lagunakaz egoteko. Baina zer zabilta apunte artean? Hori urtarrileko kontua da...	 HAZIA (Urriak 17 azaroak 15) Durangoko Azoka, Tomas Deuna eta, orain... Euskal Selektzioaren partida. Hori da martxa hori! Gabon zahar egunera arnastuka iritsiko zara... Ganorazko gauzarik egingo ahal duzu!	 NEGUA (Azaroak 16 abenduak 20) A zer ospakizuna zure urtebetetzeko! Urretan gogoratzekoa! Pentsatu duzu zer egingo duzun ezagutu zenuen neska-mutil katxarroagaz? Zure deiazen zain dago, ez egiozu hutsik egin!

Kopiak SALGAI

UK aldizkariaren bulegoan



Martikoena 16,
2. solairua
Algorta (Getxo)

Alangoko
Osasun Zentroaren alboan

Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena 

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....

Kalea/zenb..... Herria.....


e-mail.....

Telefonia..... Mugikorra.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro
☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171. posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37



HITZ GURUTZATUAK

12345678910

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

Ezker eskuma

1. Itsas barakuiluak, harkaitzetan bizi direnak, jateko onak. 2. Amorratzera behartu, haserrarazi. 3. Santu, done, deun. Orokor. 4. Itxurak. Sentiberatasunik ez du, soraio. 5. Kasik, abantzu. Izana. Uranioaren ikur kimikoa. 6. Tu eginez, tistuka. Barkatu aditzaren oina. 7. Emakume izena. 8. Kontsonantea. Bururatu. Erakunde baten antolaketan bereizten diren zatietako bakoitza. 9. Etsiak hartua. Bokal errepikatua. 10. Ate, hitz elkartzeetan. Euri zuria.

Goitik behera

1. Haragizko bekaturik ez egitean datzan bertutea. 2. Armiarmek eraikitzen duten sare. Kontsonante bustia. 3. Behinolako piratek gustuko ei zuten edari alkoholduna. Erabateko nahasmendua. 4. Kontsonante bikoitza. Nafarroako Itzako herri-ka. 5. Garaiak, aldiak. Karta joko mota. 6. Ur zikinatarako erretena edo kanala. Zuloaren erdian. 7. Zoro. Bahametakako hiriburua. 8. Latsan ari dena. Kontsonantea. 9. Gari sorta. Koaderno. 10. Izpi edo zuntz itxurako hodei zuri luzarana. Bizkaiko ibaia.

Soluzioa

V	R	R	U	T	E		V	I	V
E	E		V	U	T	I	S	T	E
L	I	V	S	V	U	T	O		T
	V	I	S	V	T	S	V	N	V
V	K	R	V	B	V	V	K	U	T
U		V	N	V	K	U		V	I
R	O	S		K	V	Z	V	R	T
R	V	T	O	R	O		N	V	S
I	Z	V	R	V	R	O	M	V	
K		L	A	K	E	V	R	A	K

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zein izango da Uribe Kostan laster jaiko den euskarazko irrati barriaren izena?

> Aurrekoaren erantzuna: Bertsolari filma
> Irabazlea: Begoña Lezamiz Etxebarria

*deitu telefonoz: 944 911 337

Nor da Mari Domingiren lagunmina?

- Tartalo
- Olentzero
- Basajaun

> Aurrekoaren erantzuna: Durangon
> Irabazlea: Maria Barrena

*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA

Oinutsik

kontsulta podologikoa

Zubigane 4, Sopelana

Tf. 94 404 74 20

oinutsik@euskalnet.net



SARIA

La Gusana


liburudenda

Tellagorri plaza, Algorta

Tf. 94 491 14 12



Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



F. JAVIER URRETXUA "PAKIKO"K UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

ALGORTAKO "BIOTZ ALAI" ABESBATZA, 1968

San Nikolas elizaren ondoan hor dituzue taldekideak "pajarita" beltzez eta Juanjo Gainza zuzendaria "pajarita" zuriz. Bera joan den azaroaren 25ean zendu zen, eta Luis Solaun, hau ere argazkian, azaroaren 21ean. Juanjok birsortu eta zuzendu zuen abesbatza (1966-1988), Javier Oyarzabali batuta utziz (1988-2008) ("Atzera begira" Bizarra Lepoan aldizkariko 7. zenbakia). Zuzendaritza bai utzi zuen baina lanari eutsiz. Musikari eta pertsona bezala nolakoa zen, oso ondo azaltzen digute 1988tik presidentea den Txema Batarritaren lerro hunkigarriek "Dolua Biotz Alain" Iritzia saileko artikuluan. Agur, Juanjo! Gogoan zaitugu eta izango zaitugu. O

1. Ierroa: Javier Solaun, J.Ramon Gerediaga (GB), Roman Cestona (abesbatzako lehen presidentea 1966-67) (GB), Julio Solaun, Javier Aristegi, Enrique Aguirre (GB), Joaquin Scheif (GB), Javier Urrutia, Inaki Laka, Pablo Laka, Guillermo Torrontegi, Angel Pinedo (GB).
2. Ierroa: Jose Basozabal (GB), Luis Solaun (GB), J.Bautista Astorkiza (GB), Jose Estankona (GB), Felix Estankona (GB), Roman Barrena (GB), Angel Hernandez (GB), Antxon Alvarez, Alberto Zarraga, Javier Artaza (GB), Eloy Batiz (GB), Ismael Moral (GB).
3. Ierroa: Ricardo Dapena, Serafin Ruiz (GB), Inaki Lores (GB), Luis Barrenetxea (GB), Jesus Hormaza, Peru Barrios, Santos Arino, Inaki Gros, Roman Rivas (GB), Karmel Arino (GB).
4. Ierroa: J. Antonio Zubizarreta, Jose M^a Mentxakatorre (GB), Jose Lejarraga, Agustin Zubizarreta (GB), Juan Jose Gainza (GB), Inaki Urrutia (GB), Roman Intxaurtieta (GB), Jose M^a Larrea (GB), Alfonso Maguregi (GB), Miguel Angel Olague (GB).

IÑAKI ETXEZARRAGA **ETXE** > musikaria

“Ez nituzke galdu gura ilusioa eta zoriontasuna”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **Baga-Biga**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Lasaia eta gertukoa.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Braveheart-en agian, heroi handia da-eta: herria defendatu eta haren alde eman du bizia.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Txirrindularia. Gaztetan ibili nintzen eta, orain ere, oso zaletua naiz; hamasei urtegaz erabaki nuen hobeto nentzela musikan.

Eta zertan ez zenuke jardun gura?

Ekonomia eta politika kontuetan.

Aitor dezakezun bizio bat.

Musikaz gainera, sexua.

Zein da zure musika talderik gogokoena?

Taldea baino, musikaria da: Bruce Springsteen, bai bere musikagatik, bai bere izaeragatik.

Kontzertuak emateko lekurik onena?

Kontzertu motaren arabera. Formatu handian bada, ikastolen aldeko jaietan; bestela, edozein aretotan, eta, beteta badago, hobeto.

Kontzertuetan gertatutako bitxikeriaren bat?

Orain gutxi, Segovian, kontzertu ostean esan zidan entzule batek: “*Ez dut ulertzen zer esaten duzun, baina sentimendua helarazten duzu*”. Horrek asko hunkitu ninduen.

Parrandarik politenak non?

Berrizen, izugarri gustuko dut herrian ateratzea, batez ere Gabonak eta inguruko jaietan: Gabon Zaharra, neguko jaiak, inauteriak e.a. Bestela, edozein zapatutan: Durangon.

Eta zein da zure ametssetako bat?

Zoriontasuna eta ilusioa ez galtzea. ○

LABURREAN— Areetan gozatu genuen *Etxe*-ren abestiak azaroaren 26an, Euskal Kulturaren Jardunaldien barruan. *Haize berri bat* disko barria aurkeztu zuen Iñaki Etxezarraga *Etxe*-k (Berriz, 1984) emanaldi hartan, eta beraz, ezin aukera galdu galderatxo batzuk egiteko. *Etxe*-k 2005ean kaleratu zuen *Zatoz nirekin* lehen diskoa, Aldapa musika lehiaketa irabazi ostean. Hasieran gitarragaz bakarrik aritu zen, baina diskoak grabatzen hasi zene-tik hainbat musikarigaz aritu da; berbarako, *Haize berri bat* azken lanean Iban Gurrutxaga gitarra-jotzaileak lagundu dio. Zuzenean ikusi gura baduzu, aurkezpen biragaz dabil hara eta hona.




KATALOGOA GETXOKO SALTOKIETAN

Katalogoan agertzen diren produktuak Getxoko saltoki hauetan aurki ditzakezue.

- AIBOA LIBURU-DENDA
- BOLIBAR ELORDUI LIBURU-DENDA
- COSAS LIBURU-DENDA
- ELO LIBURU-DENDA
- GAIK LIBURU-DENDA
- GOBELAURE LIBURU-DENDA•PAPER-DENDA
- ITXAS-IKUS
- ITZIAR LIBURU-DENDA
- LA GUSANA LIBURU-DENDA
- LA REVISTA
- LAS ACACIAS LIBURU-DENDA
- LOPEZ LIBURU-DENDA
- MAYOR 29 LIBURU-DENDA
- NADAL LIBURU-DENDA
- NEGURI LIBURU-DENDA
- NORAY LIBURU-DENDA•PAPER-DENDA
- ORIXA LIBURU-DENDA
- SAN JOSE LIBURU-DENDA•TABAKO-DENDA
- S. JUAN NEPOMUCENO NAUTIKA LIBURU-DENDA
- TROA LIBURU-DENDA
- ZUGATZARTE LIBURU-DENDA

www.katalogoa.org
www.getxo.net

musika | filmak | aldizkariak | komikiak | liburuak | gurasoentzako materiala | informatika | jostailu eta jokoak



GETXOKO
UDALERA
ZATOZENEAN,
EHIGUZU
EUSKARAZ



Getxo
bizi ezazu



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia